

ATEZ ATEKOA ETXEAN

Oiartzunen, Usurbilen, Hernanin
eta Antzuolan bizi diren
azpeitiarren esperientzia 20

uztarria

Argitaratzailea. Uztarria
Komunikazio Taldea. Azpeitia
Egoitza. Perez Arregi plaza 1, behea,
(Azpeitia, 20730)
Telefonoa eta faxa. 943 15 03 58
Posta elektronikoa.
uztarria@topagunea.com
Posta kutxa. 227, Azpeitia
Lege gordailua. SS-860/2000
Zenbakia. 138.a (2012ko apirila)
Urtea. XIII.a (1999ko azaroan sortu)
Maiztasuna. Hilabetekaria
Diseinua. Eregi Komunikazio eta
Euskara Zerbitzuak
Publizitatea. 685 730792 /
oalegria@uztarria.com
Bazkidetza. 943 15 03 58
Tirada. 2.500 ale hilerok
Inprimategia. Leitzaran Grafikak
Azaleko argazkia. U. Frantzesena
Web orrialdea.
www.uztarria.com

**Uztarria herri aldizkariaren
laguntzaileak** (erakunde
publikoak)



Gipuzkoako
Foru Aldundia



**Uztarriak
Bai Euskarari**

Oharra. Uztarria
Komunikazio
Taldea ez du
bere gain hartzen
herri aldizkariaren
adierazitako
esanen eta
iritzien
erantzukizunik



2012KO APIRILEKO UZTARRIA ALDIZKARIAN ZER?



16



04



34

iritzia

Inkesta. Udaberrian
alergiaren bat izaten al
duzu **13**

mamia

'El Conquistador'.
Inaxio Arregi eta Omar
Aizpuru esperientziaz
solasean **04**
Klik! Nikaragua
argazkitan jaso du
Ainara Garciak **16**
Mikel Labaka.
"Madrildik Azpeitia ez
da hain urruti ikusten"
24

jakiteko


Bernardo Aizpitarte
'Kabra'. Hari
eskainitako biografia
argitaratu du Uztarriak
34

Ba al dakizu aste santuko oporraLdirako
bisita gidatuak antolatatu dituztela
bakardadeko kaperara? **Uztarria**

egin zaitez bazkide Uztarrian

943 15 03 58

**Herri aldizkariak gain, Uztarriaren produktuak ere
eskuratuko dituzu.** Uztarria Komunikazio Taldeak orain arte
12 liburu (behekoak), **CD 1** (ondokoa) eta liburuxka biografikoak
atera ditu. Bazkideak baino ez ditu jasotzen, urteko kuota barruan.



1.157 bazkide
gara dagoeneko Uztarrian;
eskerrik asko denei.

30 euro dira urtean.
117.010 euroko aurrekontua du
Uztarriak 2012. urterako.



Liburuxka biografikoak. Julian Bereziartua, Leo Etcheberria, Valentina Agirre, Santi Lazkano, Amaia Garmendia, Enkarna Arregi, Iñaki Bergara

INAXIO ARREGI-OMAR AIZPURU

ETB-ko 'El conquistador' saioko lehiakideak

“gauzak eroso ikusten dira etxeko sofatik”

‘Reality’-an bizitakoa ‘ikaragarria’ izan dela diote. Gozotik ez ezik, gazitik ere izan du esperientziak, ordea, Uztarriari kontatu diotenez. 📞📧 Ainitze Agirrezabala

Halako *reality* batetan bizirauteko fisikoki ez ezik, buruz ere sasoiko egon beharra dagoela adierazi dute. **Nolatan animatu zineten *reality*-an parte hartzera?**

Inaxio Arregi: Duela hiru urte hasi nintzen saioa ikusten. Polita iruditu zitzaidan eta bi urtetan *El conquistador del fin del mundo*-n eman nuen izena, baina ez ninduten hartu. Gero, iaz, deitu egin zidaten, *El conquistador del Aconcagua* ea joan nahi nuen. Niri igoi zitzaidan batera edo bestera joan. Esperientzia hura bizi nahi nuen, eta oso polita izan zen. Omar Aizpuru: Ez nuen asko segitzen, baina udan, hondartzan geundela, koadrilan komentatu zuten Donostian kastinga zegoe-

la, eta 'heuk joan beharko duk', bota zidaten. Berotu eta hala animatu nintzen.

Hango jendearekin harremanik mantentzen al duzue?

I. A.: Lehengo astean 1.500 m-ko Nafarroako mendi bat igo genuen zortzi lagunek eta, gero, Iruñeara joan ginen afaltzera. Bolikiren etxean egin genuen lo. Lau-bost hilabetetik behin-edo elkartzen gara. Internet bidez egiten dituzte planak, baina nik ideiarik ere ez dut, eta esana diet ezer bada telefonoz kaso egiteko. Mendi-irteerak egiten ditugu, batik bat. Halere, pare bat-hiru lagun badaude ezer jakin nahi ez dutenak.

O.A.: *Infancia sin Fronteras* ONG-a eta down sindromea

||| DATUAK ||||||||||||

||| **Inaxio Arregi.** 1965eko apirilaren 11n jaioa, Loiolan.

||| **Omar Aizpuru.** 1991ko abenduaren 23an jaioa, Azpeitian.

duten umeak diruz laguntzeko egutegiak atera ditugu eta horiek sinatu eta saltzeko ekitaldietan elkartzen gara. Guztietara ezin izan dut joan, futbolagatik. Yerairekin Añotan izan naiz afaltzen, Kubanoa ere etorri da... Lehengoan Hernanira joan ginen eta *Txintxe* ere han zegoen eta, bai, elkartzen gara. Mendirako baino juergarako elkartzen gara gu.

Zuk, Omar, bereziki izan duzu harremana pertsona batekin...

O.A.: Bai.

Zer sentitzen da harreman hori telebistan ikusita?

O.A.: Jendeari gustatu zaiola ematen du. Han bakarrik zaude, eta azkenean... *Txintxe*ekin konpontzen nintzen ondoena, eta hura joatean Verorekin hasi nuen harreman estuagoa. Elkar babes-tu dugu. Egoten gara bazkariak eta egiten ditugunean, baina besterik gabe, lagunak gara.

I.A.: Munduaren beste aldera eramaten zaituzte, han mendira botatzen zaituzte ganaduak bezala, eta 24 orduan elkarrekin harreman estuak egiten dira. Eta batzuekin elkartzen zara beste batzuekin baino gehiago. Ez dago esplikaterik hemen, hori han bizi izan gabe.

Errepikatuko al zenukete esperientzia?

O.A.: Behin bizitzeko esperientzia



da, baina inork galdetuko balit joateak merezi duen, dudarik gabe, baietz esango nioke.

I.A.: Nik bai, baina ez zait iruditzen berriz hartuko gaituztenik. Hartzeraz kapitain bezala edo gauza zelebreetarako izango da.

Erderarekin zer moduz moldatu zarete?

I.A.: Hortxe ibili gara gaizki.

O.A.: Azpeitiko txarrenak hartu zituzten eta! Kar, kar, kar...

I.A.: Ulertu bai, baina gero hitz egiten... Gauzak txukun antzean esplikatu nahi dituzu, eta botatzen baduzu zerbait gaizki...

O.A.: 'Circunferencia' hura ez zenuen entenditu baina...

I.A.: Ba, eskola utzi genuela ba al dakizu zenbat urte diren? Eta, beraiek onak ez, gainera. Audientzia lortzeko, gaizki zer hitz egiten duzun hura botatzen dute. Inoiz esan zidaten, euskaraz edo egingo genuela, baina 'ez, ez, segiok erderaz, behin honaino etorrita praktikatzeara komeni zaidak-eta'.

Han bizitakoa eta gero telebistan botatzen dutena...

Asko manipulatzan al dute?

O.A.: Zeozer zeratzen dute. Pixkat beraiek nahi dutena bota eta grazia non dagoen ba... Gero, ikusi zen, hasieran batzuk sartu zituzten saltzeko. Lehenengo programak kristoren audientzia eduki zuen, eta handik aurrera hala doa. Beraien estrategia da. Orain, probetan azpijokorik-eta dagoenik ez nuke esango.

I.A.: Azpijokorik ez, baina igoal komeni ez diren gauza batzuk ezkutatatu egiten dituzte. Nahiago dituzte jendea gaiztoago egiten dutenak, gaizki hitz egiten dutenak edo saltatzen dutenak. Horiek audientzia handiagoa dute ondo hitz egin edo pertsonaren ona erakusten dutenak baino. Nik esaten nuen, 'gauza politagoak baziren ba gure artean. Txistek eta lagunartea-eta'. Baina ez, hori ez zaie komeni, saltsa eta eztabaida nahi dituzte.

Bizitako esperientzia horrek pertsona bezala zer gauza eman dizuete?

O.A.: Orain ia janaria platerean lagatzea eta... Lehen zaborretara botatzen nuen janaria orain ez dut botatzen ezta...! Platerekoa jan beti. Han konturatzen zara zer falta den.

I.A.: Jendearen balorea, mendiari dion ilusioa... Sekula mendi handiak igo gabea nintzen eta sentsazio hori: oxigeno falta, nekea... Azkenean da, muturreko egoerak pasatu, sufrututa baina txarrik gabe, eta hona etorri eta esan, 'beno, hori ere pasatu diagu!'.

Okerrena eraman duzuen zer izan da?

O.A.: Txikitan sabeleko ebakuntza egin zidaten eta geroztik tripa delikatu xamarra dut. Zortzi egun latak jaten egon ginen eta sufritu egin nuen. Gero, tripa hutsik pastillak ematen zizkidaten. Gaizki eta azkenean... Nominatzen zaituztenean ere ez da ederra. Behin nominatu ninduten, aurreneko egunean izan zen, eta pentsatzen duzu: 'zer egin ote diot nik?'. Buroiak egiten du asko. Fisikoki baino gogorragoa izan behar zara psikologikoki.

I.A.: Niretzako txarrena [Julian] lantzi etortzen zen unea zen. Handik eta hemendik zirikatzen gintuen, saltsa montatu eta denok urduri jartzen gintuen. Txinpartak pizten zituen, ez sinesteko moduan! Momentu gogorrak ere bizi izan genituen. Zortzi orduko ibilia eta gero lago batetara ailegatu ginen iluntristetzean, eta uretara sartu nahi gintuzten proba egitera. Han sartzen baginen bakarren batzuk garbitu egingo ginela esan genien. Eta hala, hurrengo egunerako utzi genuen proba. Hotzak pasata, goseak... Hiru egun generamatzan oso-oso gutxi janda, 20 makarroi ale janez. Goseak geundela esan genien, eta iluntze hartan hamburgesak ekarri zizkiguten. Zazpi jan nituen. Etxeko sofatik gauzak eroso ikusten dira, baina han... Gainontzean, ondo. Niretzako baserritik atera eta bakazioak ziren haiek. Ni gustura! Hemen egin behar da bizi, disfrutatu ahal dela.✳

Desberdinen itzal luzea

Beti izan dugu desberdintasunaren edo ezezagunaren aurrean halako beldur bat. Kontrolpean izatea gustatu izan zaio dena beti gizakiari eta hala ez dauden elementuen aurrean edo miresmena edo ezi-kusiarena egitea izan da erantzun arruntena.

Natura elementuak gehiago ezagutzen joan zen heinean gizateriak gurtzeari utzi zion. Gero eta gutxiago dira gaur egun gure kontrolpetik edo adimenaren ulermenetik kanpo gelditzen diren gauzak baina oraindik gure barnean daramagun eta hain gutxi eza-gutzen dugun organo bat da ezezagunetari-koa: gure burmuina. Horri esker beste izaki guztiak mendean hartzea lortu du gizakiak, baina, aldi berean, bere funtzionamendu ezezagunak gizakien artean oraindik kezka eta beste aldera begiratzeko jarrerak ekarri ditu. Horren ondorioz, buruko gaixotasunak dituztenak gizartearen desberdin bezala hartu izan dira eta pertsona horien gizarteratzea oso zaila izan da, nahiz eta azken hamarkadetan aurrerapen handiak egin.

Desberdintzat hartu izan ditugun hauek hor egon izan dira beti baina gizarteak existi-tu ez balira bezala jokatu du, edo muturreko kasuetan, desagerrarazi egin ditu.

Buruko gaixotasunen artean ezagunena behar bada Down sindromea dutenen kasua izan da eta jada 80ko hamarkadatik ikasgele-tan eta lantegietan gizarteratuta daude. Zen-tzu honetan, Atzegi elkarteak eginiko lana goraipatzekoa da.

Baina harridura handienetarikoa sortzen duen buruko gaixotasuna autismoa da. Apiri-laren 2a da hain zuzen ere gaixotasun horren nazioarteko eguna. 1988 urtean Dustin Hoff-man aktoreak *Rainman* filman autista baten papera interpretatu izana gaixotasun hori ezagutzen lagundu zuen. Hala eta guztiz ere, beraien gizarteratzea askoz zailagoa izan da. Gautena elkarteak izan da horri aurre eginez gaixotasuna gizartera hurbiltzeko ekimenak martxan jarri dituenak. Nik lan egiten dudan



|||||markel mendizabal|||

|||Ea guztion artean pausoak ematen ditugun desberdinen itzala argitasun bihurtzeko

ikastetxean bertan Leire, losu, Nerea gure ikasgeletako eguneroko dinamikaren partai-de bihurtu dira eta beraien zaintzaile direnak ere gure lan pedagogikoan ezinbestekoak dira.

Antxietako adibidea

Herrira etorrita Antxietako eredu nabarmen-du nahi nuke. Bertan, zaintzaileen begirada-pean modu autonomoan bizi dira buruko gai-xotasuna duten hainbat lagun. Gurea lante-giek ere gure gizartearen ekonomiaren ekoiz-pen prozesuan integratu dituzte pertsona hauek. Erakunde publikoek bere diru lagun-tzekin posible egin dute hau gauzatzea. Krisi garaian gauden honetan, ez ote dira ahaztu-ko egindako lanari jarraipena egiteaz? Hori horrela izatea gizarte heldu eta integratzaile baten eredu litzateke. Bere burua aurrerakoi-tzat duen gizarte batek ezin

ditu mota hauetako ekime-nak baztertu diru sa-rreara arazoak argu-diatuz. Gizarte moderno batek denak barnera-tu behar ditu. Ea guztion artean, begi-raleei aitortza egiten diegun aldi berean, pau-soak ematen ditugun des-berdinen itzala argita-sun bihurtzeko.*



1.solairuan gaude



ezaugarriak:
chaisse-longue-a, arkoia, lerrakorra eta relax-a



urrategideko

altzariak & sukaldeak

cm
círculo
muebles

Arretxe Kalea 9 - 1. Solairua
20730 Azpeitia (Gipuzkoa)
Telf. 943 85 72 44 · Fax. 943 85 13 14
urrategideko@urrategi.eu
www.mueblesurrategi.es

Zuretzat

D

ena dizut eskertzeko. Gutxi aurpegiatzeko. Naizenaren zati handi bat eman didazu. Gurea maitasun eta gorroto istorioa izan da; asko eman didazu, asko kentzeko. Urte asko izan gara ondoan, eta oraindik ere ez gabiltza elkarrengandik oso urrun. Ez da erraza zutaz aldentzea; zurekin duda zilbor hestea etetea. Zure gertutasunak irabazten nau egunero. Ezin dut bizia zu gabe ulertu.

Askea zarelako zaitut gustuko. Zailtasunak zailtasun, beti saiatu zara printzipio hori betetzen, eta horrek egiten zaitu zure txikitasunean handi, handitasunean txiki.

Inoiz ez zara isiltzen. Nahiz eta saiatu, ez zaitu inork inoiz mutu utzi. Beti duzu istorioren bat kontatzeko, zerbait salatzeke edo goraiatzeko. Gure herriaren istorio txikiak bil-tzen dituzu, ondoren, horiek kontatuz gure historia osatzeko. Baina asko dakizu munduko istorio txiki eta historia handiez ere. Egunero irakasten didazu zerbait. Egunero nabigatzen dut zure hitzetan. Egunero bilatzen dizut zerbait berria.

Atsegin dut larunbat eta igandeetan lasai zurekin gosaltzea: kafea, kruasana eta zu. Asteburu atsegin baten seinale bikaina. Zurekin eguna ederki hasten delako. Eguna, zurekin hasten dudalako.

Zu izan zara nire lanbide ibilbidearen unibertsitate, eta bizitzaren ikastola. Zu nire hitzen infernu eta paradisu. Errealitate gordinari zure betaurrekoekin begiratura egiten dut aurrera. Horrela saiatzen naiz mundua ulertzen. Gozotasunean gozo, gordintasunean gordin.

Tokian tokiko

Euskal Herri osoan zara ezagun. Baina tokian tokiko izena hartu izan duzu eta hartzen duzu: Uztarria, Goiena, Berria, Hitza, Baleike, Tipi-ttapa, Otamotz... Familia ezberdinak osatzen dituzu. Baina abizen bera duzue guztiok: euskal-prentsa.



ihintza agirretxe

|||Zu izan zara nire lanbide ibilbidearen unibertsitate, bizitzaren ikastola. Zu nire hitzen infernu eta paradisu

Aspaldian, arnas estuka zabiltz, ahulduta. Berezoak ere murrizten ari omen dira eta. Ziz-tadak behar omen dituzu han hemenka. Besteak beste, publizitate ezaren sareak harra-patu omen zaitu, eta ezin askatu.

Guztiak du bere alde ona, eta ahuldade horrek familiako kideak gerturatu eta elkar-tzea ekarri du. Dena ez da pena eta tristezia izango. Familia askekoa zarelako zaitut gus-tuko. Eta askori, ez zaio gustatzen zure aska-tasun hori.

Badira ikusi nahi ez zaituztenak, baita kaio-lan ikusi nahi izan zaituztenak ere. Haizeak nola, laguntzak hala iristen zaizkizu erakunde-etatik. Urtez urte gutxituz joan dira, eta aspal-dian desagertu ere bai zenbait. Haizeak era-man ditu, zenbaitek hitzak bezala. Baina zuk egunero-egunero segitzen duzu zure hitzak tatuatzan; esaldiak izkiriatzen, eta errealitate-ak aztertzen eta plazaratzen. Guri guztia eskain-tzen.

Herri-tik sortu zinen, eta oraingo-an ere herria-ri eskatu diozue ar-nasa, babe-sa. Herrita-rrak ere itota gaude, baina zuk ematen digu-zu bizitza, hitza.✱





Dinamikoa, parte hartzailea, zabala, eta herriko eta inguruko taldeen, eragileen eta sortzaile berrien plaza
Aislaren eta euskararen gunea
Parte zaharra biziberritzen laguntzeko proiektua
Beste eragile ekonomiko batzuekin elkarlana
Soreasu antzokiarekin sinergien optimizazioa helburu

Proiektuaz informazio gehiago: sanagustinkulturgunea.net-en "Nor gara?"-n



KULTUR PLAZA

2012, Azeptila / sustapen bideoa sanagustinkulturgunea.net-en



KULTUR MAHAIAK KUDEATUTA




Azeptiko Kultur Mahaia kudeatzen du Sanagustin kulturgunea, 2011ko uztailaren 22tik, udal lehiaketa irabazita. Aretoa ordutik uneoro irekita dago. Mahaia kooperatiba bat sortu zuen gestioa eramateko

Herriko kultur talde guztiak daude Kultur Mahain; 22ak. Halez gain, bazkide norbanakoak, teknikariak, Sanagustineko langileak eta udal taldeak ere badaude



EGITARAUA

Sarreradun ekitaldietan Internetetik txartelak erosteko aukera dago Sanagustineko webgunean



Ekitaldi ugari izan dira Sanagustin. Antolatzaile, era denetako erakundeak izan ohi dira kultur plazan

107 ekimen izan dira uneoro irekita denetik (zortzi hilabetea); bi-hiru egunean behin ekitaldia



Orekarri garrantzia: diziplinak, astegunak-asteburuak, egunak-gauak, herriko taldeak-kanpokoak, adina...

Egitaraua hobetzeko harremanak kultur taldeekin, Udalarekin, eta kultur aritu eta adituekin



ELKARLANA

Azeptiko kultur taldeen proiektua da Sanagustin eta, partaidetza eta izate soziala izanik, harreman mota ugari du:

Azeptiko beste elkarte eta Udalarekin

EHNE eta Urtomerekin. Baserritarren produktuak eskaintzen ditu

Eragile ekonomiko eta finantzieroei, haiek egitasmoa hau laguntzeko

Parte zaharreko tabernarien elkarteak kide da...

Argazkiak. 1. Akordioa Domusa kooperatibarekin. 2. Bat eginik baserritarrak eta Sanagustin. 3. Oriokoei proiektua azaltzen



Dagoeneko dozenaren bat herriko eragileak etorri dira Azeptira, Sanagustineko -eta Kultur Mahaiko- proiektua ezagutzera



ZERBITZUAK



Sanagustin kulturgunea autofinantzatu egiten da bere zerbitzuen, hitzarmenen eta sarreradun ekitaldien bitartez



Taberna.
09:00etatik gauerdira irekia. Aste bukaeratan ordu gehiagoz zabalik



Jatetxea.
Otarkeko, errazio, plater konbinatu eta bereziak... Lekua hartzeko: 943 105 220



Luntxak.
Ospakizunetan, ezkontzetan edota enpresen hitzorduetan mokadu bereziak



Ekipamendua.
Edozer motako ekitaldiak antola daitezke. Teknikari eta material egokiak



Mediateka.
2012 hasieratik dago. Liburuak, aldizkariak, wifia eta abar daude



Meriendak.
Urteen urtebetetzeetako jan-edan festak antolatzen dira; eskaintza zabala

HIZKUNTZ ESKUBIDEAK

**GORA.** Oharrak eta eskaintzak euskaraz.

Jostun honek bezeroaren neurrira euskara hutsean iruten du. Krisia medio, jaunartze jantzi berria egiteko ez da garairik aproposena, baina kartelak gisa horretara eginda, euskarak ez du krisirik sufrituko. Bejondeiola! 📌 Uztarria

**BEHERA.** Ausartu, eta erabili euskara beldurrik gabe!

Negozioa eskualdatu nahi ote dute? Zerbitzari bila ari dira? Edo, akaso, sukaldari bila? Ea jantoki asiar honen jabeak ere euskara erabiltzera animatzen diren. 📌 Uztarria*



kutxa



CITROËN

**Aiertza
Autoak**

943 811 915 - AZPEITIA

aiertzaautoak@telefonica.net



Pasioa garunetan

Besteen negar eta minak ez nau inoiz poztu. Seguru nago zuetariko denok, edo ia denok, artalde guztietan egoten da ardi bel-tzen bat, uste berekoak zaretela. Ezinezkoa egiten zait zure aurrean norbait triste eta bu-rumakur ikusteak zu zorion beteko egitea. Al-derantziz, ñabardura txikiren bat egingo nuke. Auzokoaren pozak tristura sortzea uler-gaitza litzateke baina inbidia, sana ala gaiz-toa, sortaraztea posible da.

Mundu honetan logikaz kanpo dauden beste mundo batzuk ere baditugu. Horietako bat niri jateko ematen didan kirolarena da.

Garunetan barrena zentzuaren orde pasioa garraiatzen denean, logikaz kanpo dagoen kontu orok logiko bihurtzeko arriskuan gaude. Batzuk, eta ez dut exageratzen, bere taldearen garaipenarekin baino aurkariaren porrotarekin zoriontsuago sentitzen dira. Eta zure taldeak irabazi eta aurkariak galtzen badu, orgasmo perfektua. Anaitasuna, Athletic eta Real Madrid izan dira historikoki xapo-tarron aurkari baino gehiago etsai historiko-ak.

Nire garunetan barrena zentzua garraia-tzen denik ez nuke esan nahi, baina inoiz ez



|||||||txetxu urbieta|||

naiz Inoren eta ezeren anti izan. Realzalea naiz eta Realak sortarazten didana ez dit beste ezerk sortarazten. Baina mokofina naiz eta gauza onak gustUko ditut. Eta Athletic hau egun handietan ikusteak, Bielsaren zuri-gorriak ikusteak bete egiten nau, gozatu egi-ten dut, asko gainera. Garunetan pasioa du-danetik txaketeroa naizela esango dute.

Txaketero banaiz, gure Mikel jubilatzen de-nean (Mikel beste urtebete bai!!!) etorkzizu-nerako zer bide aukeratu beharko dut. Orain eta beti, Real. Eta Bielsa, Martxelo, nire jain-ko berria.✘



▲RAYO MCQUEEN SANAGUSTINEN.

Auskalo zeini egin zion ihes, baina hortxe eman ditu (daramatza?) asteak, zintzilik eta eliza zenaren sabai altuari itsatsita bezala, 'Cars' filmaren protagonista irudikatzen duen puxikak. Arrankatu ezinda, Rayo McQueen. Herriko festetan saldutako dozenaka puxiketako bat bazen, jabearen negar-kexuak aspaldi itzaldu ziren. Puxika hortxe, ordea, iraunkor. 🐛🐛 Mailo Oiarzabal✘

||| MARTXOKO ARGAZKIEN OINAK. HIL HONETAN... |||



Izarraitzekoen lorpen oparoa

IGERIKETA. Herrian bizi ez garenontzat benetan harrigarria zaigu ikustea Azpeitian hainbat igerilari dela. Gure garaian ez zen halakorik, ez baitzen igerilekurik. Eta azpiegitura egokiak direnean, fruituak berehala izaten dira. Hori da politikoei kontutuan izan behar dutena. Badakit mantentzea asko kostatzen direla, baina beharrezkoak dira. Zorionak, beraz, Azpeitian kirol arloan lanean ari diren guztiei.



||||| donato unanue |||||



Euskal inauteriak...

KARNABALAK. Izugarrizko poza ematen dit Azpeitian Inauteriei euskal giroa eman nahi dienak daudela jakiteak. Zorionak, Ikasberri ikastola elkarteko guztiei. Inauteriak herriaren historian errotuak, gure-gureak direla erakusten digute. Datorren urtean berriz eta gehiago!



Bejondeizula, Jose Luis Frantzesena!

FRANTZESENA. Hirugarrenez zoriundu nahi dudana, Jose Luis Frantzesena, musikari eta musika egile handia. Gizon honek inauteri inguruan, Azpeitian diren kanten bilduma atera eta eskaintzen digu eta beste bilduma berri bat ere agintzen digu. Bejondeikala Jose Luis. Zo-

rionak 'Belatxe'. Ez dakit baina susmoa dut Azpeitiko herrian, gizon honek egindako eta egiten duen lana herriarentzat zer nolako mesedegarria den asko eta asko ez direla jabetzen. Jose Luis, honezkero, gure herrian hik baino gutxiago merezi duenik izango huen omendua! ✨

INKESTA

udaberrian
alergiaren bat
izaten al duzu?

 Ainitze Agirrezabala

KONTXI AMENABAR
langilea



“Sekula ez dut
izan alerjiarik.
Batzutan, udaberri
hasieran, azala

sentigorrago eta azkura
nabaritu izan ohi dut, eta
halakoetan krema aldatu eta
krema hidratatzailea ematen
dut. Askok arintzen dit azkura eta
hobeto sentitzen naiz”.

ALFONSO SANZ
jubilatua



“Inoiz ez dut
sufritu alerjiarik.
Udaberri
etorreran

doministiku batzuk-eta bai,
baina polenak-eta ez didate
erasaten niri. Osasun ona dut,
oraingoz”.

JESUS LASA
jubilatua



“Sekula ez. Alde
horretatik gogor
gabiltza. Semeak,
gaztea zela,

penizilinari zion alergia, eta uda
Errioxan pasatzen genuen,
hango klimak on egiten
zion-eta”.

ASIER OSA
medalla



“Ez, nik ez dut
bizitzan alerjiarik
izan. Egia esan,
katarroa hutsik

egin gabe harrapatzen dut
urtero, eta noizean behin
bizkarreko mina ere izan ohi dut,
baina ezer graberik ez”.*

Sinesmena vs sineskeria



||||||||| joxe arregi |||

Sinesmenik gabe bizitzea ez da posible. Nola hitz egingo zenioke inori, zerbait bederen sinetsiko dizun esperantza apur bat izango ez bazenu? Nola entzungo zenioke inori, zertxobait bederen sinetsiko ez bazenu? Eta nola abiatuko zara gaur autoan, sinesten ez baduzu atzo bezala funtzionatuko duela, zure autoa ondo egina dagoela, alegia?

Sineskeria, ordea, arriskutsua da. Edozein berri-lapikok burua jango dizu, eta zeure lapikoan edonor egosiko duzu laster, sinesten deskuidatzen bada.

Zer sinetsi eta zer ez? Ez dago zehatz neurtzerik, eta ni ez naiz inor erabakitzeke. Baina nago errazegi eta gehiegi sinesten dugula, sineskorregiak garela. Oso arrazionalak eta zientifikoak gara ustez, baina aise makurtzen gara edozein uste usteletara.

Noski, errealitatea ez da zientziak esten duena bakarrik: izarren distira, ilargiaren aldiak, perfume-dun lorea, txori kantaria, biziaren poza, heriotzaren mina, edertasunaren emozioa, maitasunaren samu-

rra... ere badira, eta zientziek ez dakite horretaz axal-axaletik baizik. Baina zientziak iker dezakeen guztia, sinestekotan, zientziari sinetsi behar zaio, ez inongo sineskeriari, zahar nahiz berri.

Harriturik nago zenbat sineskeria berri zabaltzen ari den garai bateko erlijio-sineskerien orde: kristal-terapiak, kolore-terapiak, soinu-terapiak... Homeopatiak, akupunkturak, kiropaxiak, garta-denborak... Astroen kartak, Atlantidak, extralurtarrak...

Noski, medizina konbentzionalak oraindik gutxi sendatzen, baina bestelakoek gutxiago. Medizina zientifikoari ez dena sinetsi, baina bestelakoei ia ezer ez: ni horretara iritsi naiz. Eta ez ahaztu: dena sendatu nahiak ere gaixotzen gaitu.

Sinets ezazu zeuregan, besteengan, ontasunean, edertasunean. Zaindu ezazu biziaren arnasa. Zaindu ezazu espiritualtasuna, begirada mistikoa. Espiritualtasunak eta begirada mistikoak ez du zerikusirik sineskizunekin, are gutxiago sineskeriekin.*

gaLdetzen hasita, Legearen arabera
arriskutsuak diren txakurrak zergatik
dabilTza muturrekorik gabe?  Uztarria

Aio esateko



||||||||| miren alcedo |||

Bizitza aldaketa ugariren hurrenkera da. Batzuk garrantzitsuak, besteak ez hainbeste. Baina bidean, aldaketen “bertigoa” leuntzeko, hainbat igarotze-eritu asmatu dugu.

Eliza errituen sortzaile handia izan da gure gizartean. Horrela, mundura ailegatzean, bataiatzen gaituzte. Gero, haurtzarotik irteteko “komuniyoa” asmatu dute. Heldu moduan bizitzeko atarian, konfirmazioa. Familia propio bat sortzean, ezkontza. Eta heriotzean, hileta kristaua eskaintzen digu erritoen gorpila osatzeko.

Azken urteetan Euskal Herrian ezkontza zibilen kopurua erlijiozkoena baino handiagoa da. Dena den, hiltzean elizatik pasatzen gara fededunak eta ez fededunak. Jaiotzetik heriotzaren bidean bagaude ere, gehienetan heriotzak harritzen gaitu. Harrituta eta minduta, ez dakigu zer egin eta une pribatu hau besteen esku, gurean elizaren esku, lagatzen dugu. Zaila den egoera elizak eroso bihurtu ei digu.

Baina batzuetan gure bizitzara poza eta zentzua ekartzen dituen pertsona azaltzen da eta pertsona horrek, beti egin delako ez ditu horrelako errituak egin nahi. Eta beste zerbait merezi duelako, zerbait berezia ematen saiatzen gara.

Azken boladan bi emakume kementsu joan zaizkigu. Biek gure bizitza argitsuagoa egin dute. Eta horrela esan genien ekitaldi banan, elizatik at, herritar gisa, geure komunitatearen parte zirelako. Protagonistak izan dira Azpeitiko lehenengo hileta zibiletan: lehena Arritxu; gero, Kontxi. Biak munduarekin maiteminduak. Bien bizitza laburra bezain oparoa. Eta haiek egindako azken oparia gizarte zibilar erritoren protagonismoa bueltatzea izan da.

Horretaz ari garela, Udalari eskatzen diegu senideei eta adiskideei agurtzeko toki duina eskaintzea.

Arritxu eta Kontxi, herritasun zentzua berreskuratzeko aukera eman diguzue. Maite zaituztegu. Eskerrik asko.*



|||||

Atez-ate ta ostiyek,
hik hartu harnasa...
ta bota, hartu...bota,
hoolaxern



Opa

Autobidean zindoazen, lanetik etxera, Loiuako aireportuaren eta Derioko seminarioaren parean. Osteguna zen, arratsaldeko zazpiak jotzeko minutu gutxi batzuk falta ziren, eta ematen zuen mapamundiaren parte hartan mundua gelditu egin zela. Normalean baino kotxe gutxiago zeudela iruditu zitzaizun, eta egun hartan jendeari sumatu zenion zerbait garrantzitsuen testigu izan nahi zuela. Jende guztiak ilusioa zuen, harrotuta zegoen, urduri zegoen. Guztiak egon nahi zuten, guztiak ikusi nahi zuten, guztiak sentitu nahi zuten. Zerbait garrantzitsuak gertatu

behar zuen. Dialari pare bat buelta eman zenizkion, irratik egokiaren bila. Ez zenuen irratik epel bat nahi. Azkenean, Bilbo aldeko irratik erdaldun bat harrapatu zenuen, dozena erdi lagun oihuka zituena, eta huraxe laga zenuen.

Orduan, mundua gelditu egin zen. Irratiko esatari eta tertuliakide guztiak isildu egin ziren, eta futbol zelaitik zetorren soinua besterik ez zuten utzi. Futbol zelaian himnoa jarri zuten megafoniatik. Hasierako oihua entzuten zen, eta harekin batera jendearen isiltasuna sumatzen zen, isiltasuna entzuten



■■■■■■■■■■**eñaut frantzesena**■■■■■■■■■■

zen, "ieup" esanda apurtzen zen arte. Eta gero, eztarri guztiak batera, kantuan hasi ziren.

Pentsatzen zenuen galduta zenuela harritzeko gaitasuna, dena ikusita zenuela, dena entzunda, baina emozionatu egin zinen, lehendik mila aldiz entzundako kanta batekin, oilo ipurdia jarri zitzaizun pentsatu ere egingo ez zenuen leku eta egoera batean. Iruditu zitzaizun entzuten ari zinena izugarria zela eta bertan bizitzea askoz ere izugarriagoa izango zela. Eta pentsatu zenuen ez direla zureak, baina opa diezula.*

EMAN EZAZU ZURE NEGOZIOAREN BERRI UZTARRIA.COM BERRIAN

**Egunean 2.000 bisitatik gora.
Interneteko bilaketetan zure negozioa aurreneko
postuetan agertuko da.**

http://www

SORTU ZURE NEGOZIOAREN WEB ORRI PROPIOA

**Eskaintzak, argazkiak, loturak...
modu ikusgarrienean jartzeko aukera.
Urtean 35 € soilik**

uztarria.com

Informazio gehiago: 943 150358 - uztarria@uztarria.com

▼ MASAYA SUMENDIA.

Nicaraguan jardueran dagoen sumendietako bat. 2012ko apirilean eztanda egingo duela diote batzuk. Azufrea jaurtitzen ez duenean, gauez, kraterrean gerturatu eta laba gori-goria ikus daiteke bere barnean.



Nikaragua bizia

Kontrastez betetako lurraldea da. Pobreziaren ilunak talka egiten du bertako natura eta paisaia aberatsaren kolorearekin. 🖋️🎧 Ainar García



► KUKU!

Lotsati ezkutatu zen haur txiki hau etxeko kortina atzean. Tartean behin, makurtu eta bestaldean nor zebilen begiratzen zuen. Argazki kamera ikusi zuenean, begira-begira gelditu eta, ondoren, irribarrez alde egin zuen bere amaren besoetara, lotsati berriro ere.





▲ **MARIA ETA HAREN AHIZPA.**

Maria Diriambako auzo txiro batean bizi da eta 11 urte ditu. Bere familiaren egoera oso gogorra da. 10 anai-arreba dira eta bere amak horrenbesterekin zer egin ez jakin eta Maria norbaiti oparitu nahi zion. Mariak abokatua izan nahi du handitan, Nicaraguako injustizien aurka borrokatzeko.

► **SALTZAILEAK AUTOBUSEAN.**

Saltzaileek edozein aukera aprobetxatzen dute janariz betetako poltsak saltzeko. Baita autobusean bidaiatzen zoazenean ere. Geltoki batetan sartu eta hurrengora arte, bidaiariei hainbat mokadutxo eskaintzen dizkiete.



▲ **ARRATSA, SA**

San Juan del Sur-era i
Nicaraguan zaudela p
ingelesez eta pobrezia
hondartzako arratsak i
ezkutatzen ikusteko.



▲ **GRANADA.**

Koloreek egiten dute deigarri XVI.mendean espainiarrek kolonizatutako hiria. Nicaraguako txokorik turistikoenetako bat, baina bertako ezaugarriak galdu gabe.



N JUAN DE SUR-EN.

itsi bezain laster, zaila da
ntsatzzea. Surfistak, ilehoriak, dena
en arrastorik ez. Hala ere, bertako
ugarriak dira, eguzkia itsasoan



▲ TRAFIKOA.

Nicaraguako ezaugarri nagusietako bat hango kaleetako mugimendua da. Modu askotako ibilgailu publikoak daude: autobusak, taxiak, mikrobusak, mototaxiak... Herriko punta batetik bestera mugitzeko, mototaxi bat hartzea aukera merke eta eroso da.



▲ EBENEZER ESKOLAKO UMEAK.

Famili behartsuetatik datozen umeak daude eskola honetan. Askok ezin izan zuten hasi ikasten orain dela hiru urte Euskal Herritik diru laguntzak jasotzen hasi ziren arte. Hala ere, beti daude irribarrez, iolasteko gogoz eta bisitariel besarkadak ematen.✕

Zer moduz atez atekoarekin?

Azpeitiar batzuek badakite zer den aspaldian guztion ahotan dabilen hondakin-bilketa mota. Haietako batzuekin egon da Uztarria. 📝📞 Ainitze Agirrezabala

Z

aborren bilketarako atez ateko sistema datorren urtetik Bildu gobernuan dagoen Gipuzkoako beste 34 herritan jarri nahi duela iragarri zuen koalizioak, joan den otsailaren 22an. Azpeitian gehiengo absolutua du Bilduk, eta aipatutako kudeaketa ezartzeko proposamena udalbatzarrera eramango du.

Gaiak herritarren artean interesa piztu duela ezin da ukatu. Zeresan handia sortu eta eztabaida piztu du aldeko eta kontrakoan artean. Egun, Usurbil, Hernani, Oiartzun eta Antzuolan dago atez atekoa, laurak Gipuzkoan, eta herri horietan bizi diren azpeitiarrek beraien esperientzia kontatu diote Uztarriari.

MARI PAZ ARANBURU

||| **Non bizi da.** Hernani. ||| **Adina.** 63 urte.

||| **Atez atekoa.** 2009ko maiatzaren 9tik.

“Kontzientzia kontua da”

“Hemen ere, hasieran, halaxe ibili ginen, aztoratuta. Ezjakintasuna genuen, eta beldurra- edo genion aldaketari. Kezka hori inguruan

%30
birziklatzen
du 5. edukiontziak;
atez atekoak, berriz,
%80, Leire Etxaniz
zinegotziaren
esanetan

somatu nuen, batik bat adineko jendearengan. Ez zutela asmatuko eta zera. Baina argigarri bezala paperak banatu zizkiguten eta oso ondo. Pixkanaka-pixkanaka jendeari beldurra joan zaio. Gero, zaborraren kudeaketaren kontua dena politizatu da. Herri honetan behintzat asko. Nik uste dut oraindik Hernanin politikaren munduko jende batek ez duela ondo egiten, kontra egiteagatik. Guri ez zaigu kostatu egokitzea, lehen ere birziklatzearen kontzientzia bagenuen eta.

Denda txiki batetan egiten dut lana eta adineko jende asko etortzen da. Oso ondo moldatzen direla diote. Behin ikasita gustura daude; ez dute lehengora bueltatu nahi. Nahi duenak egiten du. Geuk sortzen dugu zaborra eta horren kudeaketaz geuk arduratu behar dugu.

Guk ez dugu ateratzen organikoa, konposta etxean egiten dugu. 20:00etatik aurrera ateratzen dugu zaborra, eta errespetatzen da. Lanera joateko hiru puntutatik pasatzen naiz, eta lehen hirurak egoten ziren... Lurrean telebista bat ez bazen, egongo zen aulki bat, edo errumaniarrak kontainerretan ibili eta dena kanpoan. Orain, halakorik ez dago. Lehenago zaborra ateratzeko ordutegia zegoen, baina inork ez genuen errespetatzen.

Andorran bizi den lagun huruguaiar bat du senarrak eta, han errauskailua egin eta itzali egin behar izan dute. Handia egin zuten, eta hura martxan edukitzeko adina zakar sortzen ez. Eredu hartan minbizi-kopurua igo dela ere nabaritu dute. Hemen errauskailua egingo balute, ez nintzateke batere harrituko, hura betetzeko kanpotik zaborra ekartzea.



Unai Frantzesena Oiartzunen, organikoaren kuboak zintzilikatzeko pronto. ||| U. Frantzesena

Nik ez diot alderdi txarrik bilatzen. Hasieran zioten herri guztian katxarroak zintzilik edukiko genituela. Ontziak egun guztian zintzilik egongo balira itsusia egongo litzateke, baina gauean ateratzen ditugu, 23:00etarako jasotzen dituzte eta hurrengo egunean jendeak jaso egiten du. Altxairu herdoilgaitzeko posteak dira eta liso-liso geratzen dira. Niretzako lehen baino usain gutxiago dago.

Esango nuke kudeaketa honekin jendeak askoz ere gehiago birziklatzen duela. Gustatzen zaionak eta ez zaionak birziklatzen du orain. Denek. Ohitu egiten zara, azkenean.

Erosketak egitera joaten naizenean poltsarekin joaten naiz; lehenago kapazuarekin bezala. Jendea oso kezkatuta zegoen usainarekin, baina ez du kiratsik botatzen. Arrandegira joateko Udalak *tupper* batzuk banatu ditu.

Norberak mentalizatu behar du, zaborra ahalik eta gutxien sortzeko. Erosketak egiteko garaian ere ikasi egiten duzu. Paper gutxiago duena, plastiko gutxiago duena... aukeratzen joaten zara. Nik uste dut merkatuetatik hasi beharko litzatekeela murrizketa horrekin.

Gu oso ondo moldatzen gara. Ematen duena baino leku gutxiago behar da. Harraska azpian hiru kubotxo ditut: plastikoa, papeira eta organikoa. Nahi duena aldaketara ondo egokitzen da. Kontua da ardura, gogoia eta borondate pixkat izatea. Ez du inongo misteriorik. Kudeaketa ona iruditzen zaigu”.

JOXE GURRUTXAGA

||| **Non bizi da.** Usurbil. ||| **Adina.** 56 urte.

||| **Atez atekoa.** 2009ko martxoaren 16tik.

“Garbiagoa da, oso erraza”

“Bai, somatu nuen inguruan jendea aztoratuta, kezkatuta. Ohiturak aldatzea esan nahi du horrek eta denetik entzuten duzu, alde batekik eta bestetik, ikusi baino lehen. Atez atekorekin gu oso ondo gaude, konbentzitura, gainera. Herri edo hiri handietan ez dakit, baina txikietan behinik behin, oso posible da eta garbiagoa da. Hemen jendearen kultura aldatu beharra dago, aldatu beharra dugu. Ez zaigu kosta moldatzea, segituan jartzen zara. Oso erraza da. Uste duzuna baino jende arduragabe gehiago dago. Sortu, bota eta kito! Eta, gero zer egin horrekin? Hori da galdera.

Sortzen dugun zaborrarekin argi dago ahal den eta kudeaketa selektiboena egin behar dela. Guk alde horretatik lehendik nahikoa diziplina bagenuen. Baina, ikusten genuen gehiago egin behar zela. Anekdotak bat kontatuko dut. Orain dela hogeitaka urte Vancouverren, Kanadan izan ginen. Han zazpi kontainer desberdin zituzten. Zazpi. Plastikarentzako ere hiru edo lau desberdin. Atera kontuak jendeak kudeaketaren kultura nola barneratuta duen. Atez ateko sistema honek gehiago inplikitzen zaitu, eta erosketak egiterakoan ahal duzun plastiko, enbase eta zabor gutxiena sortzen saiatzen zara. Hor dago gakoa, kontzientzia hori izatea. Garai batetan sortu ere ez zen egiten, ezta laurdena ere! Nik gogoan dut Nuarben esnea base-ritik marmitetan ekartzen zuten, orduan ez zen teta brikik eta plastikorik. Erosketak egiteko ere kapazoa edo otarra. Gizarte aurrerakoa bai, baina gizarte zaborrakoa ere bai, esango nuke nik. Zaila da. Izan ere, jogurtak erosi eta plastikoa eta gainetik kartoiarekin bilduta datoz. Marketinagatik, baina hori►

►moztu beharra dago. Legeak askoz ere zorrotzagoa izan behar luke. Bolloak ere plastikotxoetan banaka bilduta datoz. 'Osasunagatik' diote, baina niri horrek barregura ematen dit. Gainera, atez atekoa dagoenetik jendeak gehiago birziklatzen du. Nahi edo ez, behartu egiten zaitu. Guk sekula santa ez dugu arazorik izan. Ez ahaztu, errauskailua inork ez du bere ondoan nahi, dituen ondorioengatik.

Zer alderdi txar ikusten dizkiodan? Lehenago zaborra uzten zen kontainerretan, beharbada, usain gehiago zegoen, eta urte sa-soian aurrera eta gehiago. Nik askotan ikusi ditut kontainerrak irekita, katuk eta organikoa eta dena hantxe saltsan. Orduan, esaten dutenek oraingoa zikina dela... Organikoarena, adibidez, plastikozko kubotxo bat da taparekin itxita. Hasieran, trabarik gehiena jarri zutenak dendariak, arraindegia... izan ziren, baina nik ia egunero hartzen dut kafea arraindegia duen batekin eta hasieran zalantzak bazituen, baina harrezkero ez diot kexarik entzun. Borondatea eta ardura hitz klabeak dira. Guk pentsatzen genuen edozer moduz bota eta hor konpon! Gauza ez da horrela, eta jendeari hori azaldu behar zaio. Zaborra gure arazoa da, ez instituzioena. Hori azpimarratu behar da. Lehenen, jatorrira jo behar da, ahal den hondakin gutxiena sortu. Hori bar-



Mari Paz Aranburu hondakinen poltsa zintzilikatzen. |||Jose Luis Gorostegi

neratuko balu jendeak, beste begi batzuetatik ikusiko luke gauza. Gero daude ohitura al daketak. Niri orain ez zait okurrizten arraindegira esku hutsik joatea; *tupperrak* eramaten ditugu. Harategira ere berdin. Gutxieneko ohitura batzuk hartzea da, eta horretarako burua ez daukazu asko nekatu beharrik. Zaborra gehiagora doa, eta horrela segituz gero estali egingo gaitu. Soluzio magikorik ez dago. Ohitura hartzea besterik ez da".

UNAI FRANTZESENA

|||Non bizi da. Oiartzun. |||Adina. 38 urte.

|||Atez atekoa. 2010eko maiatzaren 23tik.

"Kezka izatea normala da"

"Guk lehen dena, edo ahal zen dena birziklatzen genuen eta aldaketarik ez dut batere antzeman. Aurretik birziklatzen zuenarentzat etxean pote bat gehiago jartzea besterik ez da. Alde bakarra da, lehen organikoa eta zaborra nahasten zela, eta orain organikoa eta errefuxa bereiztu behar dira.

Orain zaborra errazago ateratzen dugu. Lehen ez genuen egunero ateratzen, betetzen zen arte itxoi ten genuen. Orain gehiago zaintzen dugu. Atez atekorako burnizko postea portal kanpoan dugu. Badakit Hernanin alde zaharreko etxeetan portal barruan dituztela, eta zabor biltzaileek atariko giltza dutela.

Organikoarentzako Udalak bi kubo marroi eman dizkigu, eta astean hirutan ateratzen dugu. Nahi izanez gero papera edo plastikoa ateratzeko ere erabili daitezke. Tapa dute eta kontua da ontzi horiek, etxean daudela, irekita egon behar dutela. Ixten baduzu fermentatzen hasten da eta orduan sortzen da usaina. Eta, bai, kuboa hustean geratzen dira hondarrak, baina guk ontziari azpian sukaldeko papera jartzen diogu. Nolanahi ere, ur-arastada bat eman, lehortzen jarri eta kito. Eta egunen batetan organiko asko pilatuz gero, ekarpen gunera eraman dezakezu. Inoiz eraman izan dugu, kanpora joan beharra edo plastikoa pilatuta genuelako.

Jendeak hasieran kristoren kezka zuen, baina jende horrekin orain hitz egiten duzu eta konforme daude. Gertatzen dena da birziklatu nahi ez duenak ezin duela herrian laga zaborra, eta alboko herrira eraman beharko du. Esaten dute badagoela hori egiten duen jendea, nik ez dut ezagutzen.

Azpeitian ere jendeak beldurra eta kezka edukitzea normala da. Oiartzunen ere baze- goen kezka hori, baina, azkenean, birziklatzen duenarentzat ez da esfortzu handia, eta



Jose Gurrutxaga etxeko sukaldean. |||I. Gartzia

birziklatzen ez duenak lau pote jartzea da etxean. Era berean, politizatu ere egin da kontua. Azkenean da guk A diogu, besteek B... Oraindik urtebete badago, baina jendea kezkatzen hasita dago eta Udalak ere iruditzen zait informazio gehiago eman beharko lukeela. Baina ni konforme nago atez atekoa- rekin, ez dut hobetzeko beharrik ikusten".

ISABEL OYARZABAL

|||Non bizi da. Antzuola. |||Adina. 38 urte.

|||Atez atekoa. 2011ko martxoaren 7tik.

"Hasieran, zaila izan zen"

"Arazo asko ez dugu eduki, lehen ere organikoa kenduta gainontzeko guztia sailkatzen genuen. Hasieran, organikoa bereiztea pixka bat zaila egin zitzaigun, nahastuta ibiltzen ginen. Zaborra sailkatzeko ontziei dagokienean, berriz, balkoia dugu eta arazorik ez dugu izan, baina jende asko dago balkoirik ez eta leku falta medio kexatu dena.

Nik ez dakit atez atekoa den soluzioa. Politikan ez dut nahi sartu, baina batek gauza bat dio, besteak beste bat, azkenean kaka nahasten dute, eta ez dakizu zeinek esaten duen egia. Niri iruditzen zait gaikako bilketa beharrezkoa dela mundu honetan, eta zentzu horretan, birziklatzearen alde nago

%100ean. Lehen birziklatzen ez zuen jendea egiten hasi da, eta orain gehiago birziklatzea lortu da. Gauza guztiek bezala alde onak eta txarrak ditu, baina ondo egiten ari garela iruditzen zait. Baina, badaezpada, *Conejillo de Indias* edo akuri lanetan gu. Donostia ez. Han ez dute berehalakoan jarriko!

Akatsak ere baditu. Organikoa ateratzeko zentzurik ez du poltsa organikoa galaraztea. Azpeitian 5. edukiontzia darabiltenek poltsa organikoa erabiltzen dituzte, Udalak banatuta. Izeba bati eskatu nion Azpeititik poltsa organikoa ekartzeko, eta hiru aldiz arazorik gabe jaso zidaten, baina laugarrengoan ez zidaten jaso. Atez ateko zerbitzura deitu nuen, ez jasotzearen arrazoia zein zen jakiteko, eta jende askok zaborra nahastu egiten duela eta plastikoa ez dela onartzen erantzun zidaten. Halere, adierazi zidaten poltsa organikoa erabili ahal izateko Udala ari dela lanean.

Zinta isolatzailearekin lotuta plastiko normala ipintzen dio kuboari jende askok, gero kuboak ez garbitzearen, eta plastiko hori errefuxara botatzen dute. Kuboa bere horretan ateraz gero, poltsarik gabe, narraskeria handia da. Janari-hondarrak itsatsita, dariola... Eta, eguraldi hotzarekin hainbestean, baina beroarekin eltxoak izaten dira. Antzuolako jende asko joaten da zaborra botatzera Bergarara. Bergaran esaten dute asko igo dela zaborraren kopurua. Ez dakit nik hori egia den. Nik uste dut zabor-biltzaileentzat ere errazagoa dela kuboko tapa altxa eta plastiko organikoa hartzea. Zintzilik dagoen kuboa hartu, hustu eta dena tantaka izatea baino. Bestalde, jendea ohitzen ari da arraindegira *tuperrarekin* joaten, baina batzuk arrainaren enbalajea pixoihaletan sartuta botatzen dute.

Nire proposamena da kristalaren edukiontzia utzi duten bezala, plastikoarena eta pa-

perarena ere uztea. Eta bosgarren edukiontzia kendu eta atez ateko bilketa bidez organikoa eta errefuxa jasotzea.

Beste kontu bat, Azpeitian jartzen badute, Erdikalean non jarriko dituzte poste horiek? Zuk Erdikalean denda baduzu posterik ondoren ez duzu nahiko. Egia da, kuboa-eta estetikoki txukun geratzen dira, plastikozko poltsak dira zatartzen dutenak zeharo. Lurrean ez da ezer ere geratzen, eta egunean zehar ere ez da zintzilik ezer egoten, gauez bakarrik atera daiteke. Goizeko seiak edo zazpietarako jaso egiten dituzte, normalean. Lehengo batean, ordea, arratsaldeko 19:00etan bostsei kubo artean zintzilik zeuden, jabeak ez ziren-eta bila joan. Eta kubo horiek zikinak badaude usaina botatzen dute eta horrek eltxoak erakartzen ditu. Gauzak ondo eta txukun egitea nahi badugu, erraztasun gehiago eman beharra dagoela uste dut nik".*

Helburua, zero zabor

Azpeitian atez ateko zabor bilketa ezartzeko proposamena udalbatzarrerara eraman aurretik, bilera informatiboak egingo ditu Bilduk, herritarren kezkak argitzeko.  A. Agirrezabala

Azpeitian atez ateko zabor bilketa ezartzeko proposamena hil honetako udalbatzarrean egingo zuela iragarri zuen bilduk, baina Leire Etxaniz zinegotzi eta Urola Erdiko Mankomunitatearen lehendakariak adierazi duenez, udalbatzarrera ezer eraman aurretik "argi" dute bilera informatiboak egin behar dituztela, herritarren kezkak argitzeko.

Birziklatzearen "alde" daudela dio, "ez hondakinak erretzearen alde", eta "helburua zero zaborrerari iristea" dela. "Bosgarren edukiontziaarekin %25-30 birziklatzen dugu, eta bada emaitza hobeak lortzen dituen beste sistema bat: atez atekoa. Ez dugu auzitan jartzen %80 birziklatzea lortzen duen sistemarik. Sistema eraginkorrenaren alde egingo dugu eta zaborrik ez sortzera garamatzatzen politikak onartuko ditugu".

Azpeitian 2008tik dago martxan bosgarren edukiontzia, baina Etxanizen esanetan "ez da batere eraginkorra. Egun, oraindik, %72a zabortegira doa, nahiz eta gehiena birziklagarria izan. Hondakinak birzikla daitezke, baina hondakin motak nahastean zaborra bihurtu eta ezin dira birziklatu. Arazo larriena, gai organikoa beste gaiekin nahastean sortzen da, organikoa beste guztiak kutxatzen dituelako. Zabortegetan ere organikoa sortzen ditu arazo gehien; beraz, gaika biltzearen helburu nagusia organikoa modu berezian jasotzea da".

Bailarako zabor kudeaketa

Urola Erdiko mankomunitatea zazpi herri osatzen dute eta haietako lau —Beizama, Aizarnazabal, Errezil eta Bidegoian— herri txikiak dira. Herri txiki horie-

tako etxebizitza gehienek baratza edo lorategia dute, eta helburua "sortzen duten hondakin organikoa beraiek kudeatzea da. Horretarako, utokonposta ikastaroak antolatu ditu mankomunitateak. Eta gainontzeko hondakinak etxola batean kokatutako ontzietan utziko dituzte".

Lapatxen egoera

Konposta planta, garbigunea eta zabortegia daude Lapatxen. Gipuzkoako Hiri Hondakinak Kudeatzeko Plan Orokorrean eta honen 2008ko Aurrerapen Dokumentua izeneko berrikuspenean, hondakin organikoaren kudeaketa plangintza bat egingo dago. Haren arabera 2009 urterako Gipuzkoan hiru konpostatze planta eraiki behar ziren eta urtean 30.000 tona hondakin organiko konpostatzeko ahalmena izan

behar zuten hiruren artean, baina Lapatxeko konposta planta bakarrik eraiki zuten. Beraz, Azpeitiko planta planta pilotoa da. Etxanizen esanetan, "urtean 2.500 tona hondakin organiko tratatzeko ahalmena besterik ez du, eta iaiz 6.000 tona bildu ziren. Beraz, kolapso egoeran dagoela esan daiteke. Konpostatze planta berriak egitea ez da bi eguneko kontua bakarrik". Oraingoaz, Bergaran aurreikusita zegoen planta egiten hasi dira. "Herrialdeak sortzen duen hondakin organikoa tratatzeko beharko diren azpiegiturak, zenbat eta nolakoak izan behar duten, eta non kokatuko diren aztertzen ari dira. Azpiegitura horiek eraiki bitartean, gaika bildutako hondakin organikoa zabortegian usteldu eta arazo bihurtu ez dadin behin-behineko irtenbideak bilatu dituzte. Aipatutako lekuetan konpostatzera eramaten ari dira gaika biltzen den hondakin organiko guztia. Horreklin batera, herrietan bertan hondakin organikoa kudeatzeko aukera bultzatzen ari dira, etxeko eta kaleko konpostaiaren bidez".

Zabortegiari dagokionez, "egungo ereduaren duten zabortegi kutsatzaileak itxi egin behar dira, kutsakorrek direlako".*

MIKEL LABAKA

futbolaria

“Madrildik Azpeitia ez da hain urruti ikusten”

Kirolari profesionalak lantokiz eta herrialdez aldatzea ohikoa da. Labakari ere tokatu zaio. Aldaketak egunerokoan ekarri dionaz mintzo da.  Mailo Oiarzabal

Realaren talde nagsuain zazpi denboraldi osatu eta gero, joan den udan Madrilerako bidea hartu behar izan zuen Mikel Labakak. Rayo Vallecanon ari da jokatzeko, Espainiako Lehen Mailan jarraitzen du, baina bizi-modua ere aldatu zaio. Berari, eta etxekoei.

Zer moduz bizimodua Madrildik aldean?

Ondo, ondo. Aldaketa handia da, baina etortzerako bagenekien hala izango zela. Neuk lehen ere Murtzian urtebete pasatu behar izan nuen [2003-2004 denboraldian Ciudad de Murcia taldean jokatu zuen, Bigarren Mailan, Realak utzita] eta esperientzia hark balio izan dit, kanpoan bizitzea eta Realekoa ez den beste alda-

gela bat ezagutzea zer den jakiteko. Baina egia da hau desberdina dela, familia osoa gaudelako hemen, alaba batekin, baita... Baina ari gara egokitzen. Madrilen gaude eta nik ulertzen dut Azpeititik Madril oso urruti ikusten dela, baina Madrildik Azpeitia ez da hain urruti ikusten. Pare bat egun libre harrapatzen ditudanean horra joateko aukera izaten dugu. Azkenean, ez gara hain hain kanpoan edo urruti sentitzen. Alaba haurreskolara joaten da, baina badute tarteka horra joateko aukera. Irati ondo egokitu da eta, egia esan, horrek ere asko laguntzen digu.

Entrenatzera joaten non ematen duzu denbora gehiago, hor ala hemen?

||| DATUAK |||||

||| **Jaio.** 1980ko abuztuaren

10ean. ||| **Herria.** Azpeitia.

||| **Bizi tokia.** Madril.

||| **Lanbidea.** Futbolaria, Espainiako Lehen Mailako Rayo Vallecanon jokatzeko du.

Hiriburutik 15 kilometrora bizi gara eta Azpeititik Zubietara joaten ematen nuen denbora eta hemen behar dudana antzekoak dira, baina hor denbora asko pasatzen nuenaren sentsazioa neukan eta hemen, berriz, denbora gutxi pasatzen dudala iruditzen zait. Hemengo jendearekin hitz egiten duzu eta konturatzen zara hemen ordu erdi oso denbora gutxi dela. Hasieran futbol zelaitik urruti jarri ginela bizitzen pentsatzen nuen; baina gero konturatzen zara, hemen, ordu erdi ez

dela ezer, kotxearekin edozein tokitara joateko behar duzula ordu erdi, gutxienez. Pazientziarekin hartu beharra dago, hori bai.

Egunerokoan zer moduz? Azpeitian etxekoak eta lagunak bertan, kalea... Eta hor?

Hor bai aldaketa somatzen dela, egunerokotasunean. Hor Saioa [neskalaguna] lanean ari zen eta hemen ez... Bizimodua desberdina da. Azpeitian geure inguru bat dugu, geure jendea eta, hemen, zentzu horretan lotuago gaude. Egia da, denborarekin, taldekideekin ere harreman bat egiten duzula. Eta konturatzen zara, baita, Madrilen euskaldun dezente bizi dela eta inguruko jendea ere, lana dela edo bidaiaren bat dela, etortzen da eta horrek ere aukera

ematen du pixka bat despejatzeko eta beti hirurok bakarrik ez egoteko.

Madrilatik zerbait 'inportatzekotan', zer?

Nik, pertsonalki, anonimotasuna eskertzen dut. Metroan ibiltzeko ohitura ere badaukat, eta jendeak ez zaitu ezagutzen, inork ez dizu azalpenik eskatzen, eta hori eskertu egiten da, egia esan. Lasaitasun puntu hori irabazi dut. Azpeitian herritar bat naiz; baina Azpeititik kanpo, Gipuzkoan, igoal bai jendeak beste era batera ikusi izan nauela. Hemen arraroa da kalean zoazela inork ezagutzea. Pasatu izan zait norbaitek ezagutzea, baina gehienetan euskaldunak zirelako! Etetik ateratzeak beste errutina batzuk hartzeko, distantziarekin gauzak beste modu batean ikusteko eta normalean egingo ez zenituzkeen gauzak egiteko patxada ere ematen dizu.

Hemen denbora betetzen laguntzen zizuten gauzak falta eta beste batzuekin bete behar?

Hori da. Lehen esan dudana bezala, faltan gehien botatzen duzuna ingurua da, bai lagunak, bai familia. Inguru hori falta duzu eta hori hemen aurkitzea ezinezkoa duzu. Baina aldaketa horrek beste gauza batzuk eman ere egiten dizkizu, eta aprobetxatu egin behar.

Kazetariekin zer moduz? Realean baino presio gehiago, gutxiago...?

Rayo Vallecas bertan da inportantea. Hortik kanpora, prentsan eta, ez du halako jarraipenik. Kontuan izan behar da Reala Gipuzkoa osoan eragina duen taldea dela eta, egunkari bat baino



Mikel Labaka Irati alabarekin, bizi diren inguruko jolas parke batean.

gehiago, egunero-egunero Realaren informazioa eman eta eman ari direla. Hori Rayo Vallecanorenkin ez da gertatzen. Vallecasen egundoko afizioa dago, jendeak taldea asko jarraitzen du; futbole-an, presioa denean dago, baina prentsaren aldetik gutxiago somatzen da hemen. Gero, pertsonalki ere, ez da berdina; bertakoa izan ala kanpokoa, zeuk zeure buruari jartzen diozun presioa ere ez da berdina, nahiz eta toki guztietan beti gauzak ahal den ondoen egiten saiatu.

Eta nolakoa da taldeko giroa?

“Hemen arraroa da kalean zoazela inork ezagutzea”

Giro ona daukagu, kirol aldetik emaitzak onak izaten ari dira eta horrek ere laguntzen du. Realean etxeko jende pila bat dago, gaztetatik elkar ezagutzen direnak asko. Hemen, berriz, urtebeterako edo birako kontratuarekin gaude gehienak; eta Vallecas bertakoa, bakarra. Eroso nago, egia esan, baina desberdina da.

Madriren, Vallecas auzoak izaera berezia eta indartsua izatearen fama dauka, langile auzoa. Hala al da?

Ikusten da jendea ekonomikoki egoera eskasean dagoela, oraingo krisiarekin-eta gehiago, gainera. Auzo ezkertiarra dela ikusten da eta hori taldearen inguruan ere antzematen da; klubak berak, auzoak eta afizioak ezaugarri horiek badituztela uste dut. Azpeititik agian beste ikuspegi bat izan dezake jendeak, Vallecas Madril delako, baina hemengo afizioak normalean oso harreman ona dauka euskal jarraitzaileekin.✱

KOLOREAREN ESPARRUAN EZ DUGU MUGARIK"

URBISTONDO
MARGOAK

Salbe Auzunea, 35 behea 20730 AZPEITIA - Urrut.: 943 81 57 81



AIZPURU AUTOAK

Landeta Auzoa - Tel.: 943 81 23 59
Faxa: 943 81 22 81 - 20730 AZPEITIA
aizpuru@aizpuru.net

Eskaintza bat egin nahi dizugu: **BERRI**Aren harpidetza **%50 merkeago 2012an**

informazio nazionala eta lokala **eskaintza osatua**



Asteartetik igandera, euskarazko egunkari nazionala. Kalitatezko informazioa, garai berriak hobeto ulertzeko.



Asteartetik ostiralera, tokiko euskarazko informazioa. Eskualdeetako HITZAK.



Ostiraletan, herrialdeetako HITZAK.



Aisialdiaz gozatzeko behar duzun guztia eskainiko dizun hilabetekaria

paperean ●●●●●●●●



berriak.info

Komunitate irekia, informazio jarioaren sare soziala. Topagune eta eztabaldagune berria.

www.berria.info



Herrietako Hitzen webguneak.

●●●●●●●● **sarean**

Harpidedunen beharretara egokitutako zerbitzua

- Aukeratu ezazu harpidetza aste osokoa, astegunekoa edo asteburukoa nahi duzun, eta prezio erdian emango dizugu.
- Goizean goiz eramango dizugu, zuk aukeratzen duzun lekura.
- Gainera, harpidedun izateak hainbat abantaila emango dizkizu: deskontuak, zozketak...

Zu zara berria

Harremanetarako:

943-30 43 45 • harpidetza@berria.info

|||alaitz olaizola|||



|||gurutze eizmendi|||

Guk egin izan bagenu

Alaitz. Kafea hartuz tabernan hirekin geratu naun gure hilerokoa idazteko. Aizan, kristoren moskeoa zeukanat!

Gurutze. Hi baino beranduago etorri naizelako moskeatu al haiz? Hala badun, barka nazan. Hori dun “egun on” esateko modua!

Alaitz. Arrazoa dun, hasteko egun on. Al-darte onean jaiki naun eguraldi zoragarriak lagunduta. Baina tabernara iritsi naizenean...

Gurutze. Egun on hiri ere. Askotan gertatzen dun, bai, eguna umore onean hasi eta bat-batean poz hori zapuztea. Ez badun nahi, ez kontatu, baina kontatzen ez badidan, ni geratuko naun moskeatuta. Nahiago dinat hire moskeoa nirea baino.

Alaitz. Tabernan sartu naun eta utzi dizkinat poltsa eta gainerako bartuloak mahai baten gainean. Aulki bakarra zegonan aukeratutako mahaian, eta beste baten bila joan naun urrutiko mahai batera. Segidan, barrara hurbildu naun kafesnearen bila, eta buelta emandakoan, bi aulkiak falta, hi! Inguruko mahai bateko emakume bat barrez lehertzen ari zunan. Hark ederki ikusi din gertatutakoa.

Gurutze. Bat-batean bi aulki desagertu? Emakume bat barrez... Bai gauza kuriozoso... Geroz eta jakin-min handiagoa jartzen ari zaidan... Kontatu hidan behingoz gertatutakoa!

Alaitz. Kontua dun, nirekin batera aiton-amonak bikote bat eta beren alaba sartu direla tabernan. Behar adina aulkirik ikusi ez, eta amonak, txukun prestatutako gure txokotik hartu ez dizkin ba! Gurutze, argi zegonan gure mahaian jendea zegoela! Ba hi, buelta eman eta aulkirik ez! Horrelako egoeretan, normalean isilik geratzen naun, benetan, eta helduak badira are eta gehiago, baina gaur esan egin zionat, gureak zirela, mesedez.

Gurutze. Helduen ateraldi horiek normal-

|||**GURUTZE.** “Lotsagabeak garela esaten ditene, gazteok hori egiten badinagu,”

|||**ALAITZ.** “Okerrena dun, ni sentitu naizela gaizki esateagatik”

tzat hartzen dizkinagu, errespetua izan behar zaiela erakutsi digutelako. Baina beti galdetu izan zionat nire buruari, zergatik jokatzene duten horrela. Gazteok hori egiten badinagu, lotsagabeak garela esaten ditene, eta alderantziz. Adinaren ajeak. Beti hala ote?

Alaitz. Okerrena dun, ni sentitu naizela gaizki esateagatik! Eta handiena, bi aulkitik bakarra bueltatu duela! Ez zionat besterik esan...

Gurutze. Ba omen zagon herrian emakume bat erosketak egitera presaka joan, eta bere aurrekoek kaxan pasatzen uzten diotenak. Gu ere zahartuko gaitun... eta orduan zer?

Alaitz. Bizi garen seinale... Beste batzuk honen antzeko zerbait idatziko dinat guri buruz zahartzarora iristen garenean. Bizitzaren errota!✱



Lagunak, betirako

Heriotzaz hitz egiten duen komedia, adiskidetasunaz jarduten duen tragedia eta bizitzeko gogoaz hizpide dituen tragikomedia da 'Hil arte bizi'. Sara Cozar, Joseba Usabiaga eta Iker Galartza dira aktoreak.  A. Agirrezabala

Drama oinarri duen komedia da *Hil arte bizi*. Heriotzaz hitz egiten duen komedia, adiskidetasunaz jarduten duen tragedia eta bizitzeko gogoaz hizpide dituen tragikomedia. Txalo konpainiak estreinatu berri duen antzezlanaren Sanagustinen taularatuko dute.

Hiru lagun arteko harremanari erreparatuta, adiskidetasunaz, traizioaz eta heriotzaz mintzo da *Hil arte bizi* obra. Angel eta Maria bikote dira, baina harremana hautsi egingo da Mariak bikotearen lagun min Nachorekin maitasun istorioa izan duelako. Horik abiatzen da elementu dramatikoak eduki arren komedia den lana.

Veigaren jatorrizko lana

Hain juxtu Iker Galartzak berak itzuli du euskarara jatorrizko lana,

DATUAK

Zer. 'Hil arte bizi'.

Aktoreak. Sara Cozar, Iker Galartza eta Joseba Usabiaga. **Eguna.** Apirilak 22 (igandea). **Ordua.** 17:30 **Tokia.** Sanagustin.

Antolatzailea. Sanagustin.

Javier Veiga aktore eta egile galiarraren *Amigos hasta la muerte*. Iragan urtarrilaren 13an estreinatu zuten Andoainen, Basetero kulturunean.

Begoña Bilbaok zuzendu du, eta Sara Cozar, Joseba Usabiaga eta Iker Galartza aktoreek jokatzen dituzte hiru pertsonaiak.✱

'HIL ARTE BIZI'

2 emanaldi. Ordu eta erdi irauten du antzezlanak, eta bi bider eskainiko dute obra: 18:00etan eta 20:00etan.

10 euro. Kostako da sarrera eta sanagustinkulturunea. eros daitezke. Egunean bertan, lehiatilan ere bai.✱



'Hil arte bizi' antzezlaneko aktore Iker Galartza eta Sara Cozar. **Txalo konpainia**

BESTERIK

1 Aizkorak zorrozuta

Urrezko aizkolarien Eusko Label banakako txapelketako kanporaketa jokatuko da.

Ohorezko mailako hamaika aizkolari izango dira nor baino nor, eta Urrestillako txapelketan sailkatzen diren lehen bi lagunek egingo dute aurrera.

Eguna. Apirilak 8 (igandea).

Ordua. 12:00 **Tokia.**

Urrestillako frontoia.

Antolatzailea. Egur-Sport.

2 IV. motor jaialdia

Motor eta garai bateko kotxeen erakusketa ikusteko parada izango da, egun osoan. Goizean, Sanjuandegin elkartu eta motorrean buelta emango dute.

Eguna. Apirilak 14 (zapatua).

Ordua. 09:00etatik

22:00etara. **Tokia.**

Xanjuandegi. **Antolatzailea.**

XJ Auzolanean eta Rochas taberna.

3 Fibromialgiak sakon

Sentsibilizazio zentraleko sindromeak izango dituzte hizpide hitzaldian: fibromialgia, neke kronikoa, sentsibilitate kimiko anizkoitza eta elektrohipersentikortasuna.

Eguna. Apirilak 18 (asteazkena). **Ordua.** 17:30

Tokia. Sanagustin

kulturunea. **Antolatzailea.**

Gipuzkoako Fibromialgia eta Neke Kronikoko Sindromearen Elkarte.✱

Azpeitiko ekimenez informazio gehiago: uztarria.com/agenda



Euskara Zerbitzua

- Itzulpenak eta zuzenketak
- Euskara planak

Komunikazio Zerbitzua

- Diseinua:

- Logotipoa, papertegia...
- Katalogoak, kartelak, diptikoak, triptikoak...
- Aldizkariak, liburuak, liburuxkak...
- Seinaleztapena

- Komunikazioa:

- Prentsa bulego lanak
- Komunikazio kanpainak
- Mailing-ak...

HITZ GEZIDUNAK



			Lapurdiko udalerria	▼	* IRUDIAN	▼	Ipar EHn izu	▼	Andorrako	▼	Aitzin
			Ezin bukatuzkoa		Barazki mota		Ez arra		Tirolgo ibala		
			▶		▼		▼		▼		▼
			Garmin usaina hartu	▶							
			Mortxila								
Bizipen	▼	Bermatzaile	▶ ▼					Galdetzaile bat	▶		
Ordezkoak		Baliorik gabeak						Katu ar			
▶		▼						▼	Kontso bikoitza	▶	
									Tolosako auzoa		
Ez malgu	▶						Interjekzioa	▶	▼		
Frantziako hiria							Aurpegiko irekiune				
▶					Jakin-garria	▶	▼				Ukapen
					Futbol tanto						
Txistua	▶			Zaildu	▶ ▼						▼
Gabestia				Gramoa							
▶			Sukaldeko ontziak	▶ ▼							
			Bokala								
Zerbait ekartzen du	▶		▼						Zoro	▶	

* Azpeitiko futbol zelaia

|||HITZ GURUTZATUAK|||

EZKER ESKUBI: 1. Gizaseme heldu, gizon. 2. Lehenengo bokala. Asiako estatu bateko biztanle. 3. Eskailera. Harrapa ezan! 4. Eragozpen. ... izan, gauza izan. 5. Zuhaitz mota. Erne, adi. 6. Egunaren atal. Aintza. 7. Ikasturtearen hasieran. Sabel, tripa. 8. Loratze. Kontsonantea. 9. Norbait edo zerbait erortzen den aldietako bakoitza.

GOITIK BEHERA: 1. Gaztak egiten ditu, gaztagin. 2. Boka-lik meheena. Erraz urratzen da, hauskor. 3. Distira eman, bereziki oinetakoei. Hizki grekoa. 4. Etxeak eraikitzeko lur eremu. Su bizi. 5. Mendien arteko ordokia. Lore. 6. Eguzki. Gauzei atxikitzen zaien zikintasuna, kraka. 7. Zibilizazioaren hasieran. Hamarren bat litroko edukiera duen pegar. 8. Txori kantari aparta. Bostehun, zenbaki erromatarren araber. 9. Monumentu.

	1	2	3	4	5	6	7	8	9
1									
2		■							
3							■		
4						■			
5					■				
6				■					
7			■						
8								■	
9									



Egilea: Luma

||| SOLUZIOAK |||||

HITZ GEZIDUNAK

O	R	E	●	A	E	L	R	A	K	E	●
K	A	R	R	O	P	O	G	●	A	Z	E
U	T	R	A	H	I	G	●	A	T	●	
●	A	U	A	T	D	●	E	L	L	I	L
E	R	I	A	●	N	U	R	R	U	Z	●
R	R	●	K	A	E	D	R	O	N	I	O
R	O	N	●	E	M	E	R	B	●	B	●
U	D	N	I	M	R	A	G	●			
A	N	I	Z	E	A	K	U	B			
●	A	●	I	●	G	●	M	●			

HITZ GURUTZATUAK

I	D	L	A	R	O	R	E
R	●	I	D	L	A	R	O
R	O	B	L	I	G	●	K
A	I	A	R	O	L	●	G
T	R	U	Z	●	E	T	A
A	I	G	●	A	B	A	T
O	N	●	I	B	U	R	Z
R	A	I	K	A	R	I	●
O	K	Z	E	N	O	Z	I

||| ZEIN DA? |||||



||| ARGAZKI LEHIAKETAN ERANTZUTEKO EPEA. Apirilak 20 (ostirala) ||| NORA BIDALI ZURE ERANTZUNA. Perez Arregi plaza 1, behea. Azpeitia ||| IRABAZLEARI SARIA. Odriozola upategiko ardo sorta ||| PARTE HARTZEKO BALDINTZA. Uztarria Komunikazio Taldean bazkide izan behar da ||| ZEIN DEN ADIERAZI.

||| ZURE IZEN-ABIZENAK

||| TELEFONO ZENBAKIA

||| UZTARRIAREN MARTXOKO ARGAZKI LEHIAKETA |||||

ZER DAGO SOBERAN? ZER FALTAN?



ELIZAREN ATZEKO ETXEA SOBERAN DAGO



IRABAZLEA



Patxi Galagarra Uztarriako bazkidea izan da lehiaketako 137. irabazlea. Odriozola upategiko ardo sorta irabazi du sari gisa. Argazkian, Patxi Galarraga, saria eskuetan duela.

ODRIOZOLA ARDOAK

ardoetan aukera zabalena
bertako produktuak eta gutixiak

Iñaki Azpiazu, 5 - Azpeitia - Tel. 943 15 13 16
Axiri poligonoa, 10 - Azkoitia 943850059 / Aitzuri kalea - Zumaia 943860103

od
rioz
ola

Hirugiharra

Txerri haragiaren zati bat da; konparatzen hasiz gero, atunaren mendrezka edo gure sabel aldeko giharren antzekoa da. Harategietako kategorien sailkapenean mailarik baxuenean dago, baina arrautza pare frijituekin bada, edozeinen gogoia aseko luke, inolako zalantzarik gabe.

Txerriak duen pisuaren %5 besterik ez da. Freskoa denean neurrizko estimazioa du, baina kontserban, gatzatua eta ketua bada, errespetu handia sortzen du. Haragi oso ona da, baina gizen edo zahar konplexurik gabeko pertsona osasuntzat. Motel liseritzen da, eta inoiz ez da gehiegi edo presaka jan behar.

Gatza, pipar-hautsa edo beste eransgarriak izan ditzake. Ia %90 da jangarria. 100 gramok 400 kaloria ditu, 5 arrautza egosik bezala. %45 koipea du, kakahueteak bezala. Sodio asko du, aurretik ondutakoa delako, eta hori oso kontutan izan behar dute tentsio altua duten peetsonek, ez baita ona beraientzat. Bitaminaz pobrea da.

Badakigu gatza erabat beharrezkoa dela bizitzarako, baina gure artean elikagaiek dutena nahikoa da gehiago erantsi gabe. Beharrezkoa delako, likidoen eta gatzaren kopuru egonkorra mantendu behar dugu gure soinean.*



|||||||julian bereziartua|||||||

MAITANE URBISTONDO estetizista



1. Beti eder egoteko truko bat?

Zoriontsu izatea.

2. Asko zaintzen dugu itxura azpeitiarrok?

Bai, gaztetxoek asko.

3. Eskatu dizuten gauzarik zelebreena?

Kutxillarekin depilatzea,

ebakuntza zuelako. Hori ez da nire egitekoa, ordea.

4. Lekurik bitxienea?

Depilazio brasildarra.

5. Laserraren kompetentzia sumatu?

Bai. Jende guztiak laserra eginez gero, argizariaren lana bukatuko litzateke.

6. Inork alde egin du lanak erdizka utzita?

Ez, baina gaizki pasatu eta eskutik heltzeko keinua egin izan didate.

7. Oparitzeko zer?

Masaje erlaxagarria, olio goxo eta berezi batekin.*

✂ Ainitze Agirrezabala

Amenabar
DENDA
gortinak, ohazalak,
edredoi nordikoak ...
Eliz-kale, 32-behea - Tel/Fax: 943 15 06 97

AZKOITIA
ERLOJU
KONPONKETAK
Arana, 5
AZPEITIA Tel.: 943 81 47 12

Euskal Herria, 34
20730 AZPEITIA
Tel.: 943 15 16 40
Ekain
ALBARTARI KLINIKA
Larrialdia: 943.15.16.40

IRENE ALTUNA
LORADENDA
Loiola-Bide, 26 Tel. 943 81 51 87
www.ialtunadenda.com

lora-etxea ...
Kimubat
ASTE BUKAERAN IREKIA
Azpeitia-Urrestilla Bidea 20730 AZPEITIA Tfnoa.943 150085 www.kimubat.com

ostadar optika
OPTIKAK - OPTOMETRISTAK
Jose de Arretxe, 17
Tel. 943-810664
AZPEITIA
Ibai Ondo, 28
Tel. 943-850445
AZKOITIA

lentzeria
mertzeria
jose artetxe, 16
nabar

domusa

ELKARRIZKETA DIGITALA jose mari orbegozo (dantzaria)

“Irabaztea gauza bat da, eta bestea goian mantentzea”

Europako Dantza Txapelketan, vals, tango eta pasodoble modalitateetan bigarren postua eskuratu du Amaia Gonzalez bere bertiko bikotekidearekin. Aldiz, sal-san lehenengoak izan dira.

Iaz Europako txapeldun. Aurten azpitxapeldun. Esan daiteke Europako onenen artean zaudetela.

Puntuazioak, behintzat, hala dio. Biok dantza eskolak ditugunez hor goian egotea ona da. Irabaztea gauza bat da, eta bestea goian mantentzea. Aurten sal-san egin dugu lehenen, eta txapelketa irabazten dugun bosgarren aldia da. Europako vals, tango eta pasodoble konbinatuan, berriz, bigarren egin dugu.

Tandema zarete.

Bai, senar-emazteak bezala gara. Ordu asko pasatzen ditugu batera, eta errietak, pozak, barreak, disgustuak... elkarnabatu ditugu.



INKESTA

Nora joaten zara paseatzera?

Lasao aldera. %17,57.

Loiola aldera. %66,89.

Nuarebako urtegira. %5,41.

Beste norabait. %10,14.

Oraingo galdera. Gustatu zaizu Elkartasun Eguneko kanta?

Zer eman dizu dantzak?

Poz asko. Txapelketak irabazteak poza eman digu bioi. Ikasleek txapelketetan parte hartzen hasteak eta ongi pasatzen dutela ikusteak ere bai. Ikasleekin haserretzen naiz tarteka, baina gehienetan poza eman dit ikasleek nola gozatzten eta zer giro duten ikusteak.

Azpeitian ba al da dantzarako afiziorik?

Bai, gero eta handiagoa. Nik zapatuetan ematen nituen lehen klaseak, eta orain ostegunetan ere bai. Jendea gustura ibiltzen da, eta dantzari onak dira gainera. Diziiplina ona dute helduek zein umee. Azpeitiko umee diziiplina ona dute, dantzan ondo egiten dute eta ni agorantzen ez dute gutxi egiten. Umeeekin harrituta nago. Bestetik, 14 eta 16 urte arteko ikasle gazteak ere badituzte, eta zapatuetan dantzan ikusten ditudanean aho zabalik uzten naute.✕

EFEMERIDEAK

1541

Jesusen Lagundiko lehen jeneral. Izendatu zuten, aho batez, Loiolako Inazio.

1566

Presoak zigortzeko berreroa. Herriko kartzelan zeuden hiru lapur zigortzeko berreroa ekarri zuten.

1681

Parrokiko kanpaia. Funditza erabaki zuten. 1.200 erreal ordainduko ziren horretarako.

1823

Urrestillako Udala. Aurrez ezerezean utzitako Urrestillako Udala berrezarri zuten.

✎ **Iturria:** Azpeitiko efemerideak. Herria historian zehar liburua.

✎ **Egilea:** Imanol Elias Odriozola.

✎ **Argitaratzailea:** Uztarria Kultur Koordinakundea.✕

www.uztarria.com

azpeitiko ataiye

✎ eguneko albisteak ✎ irakurleen erantzunak ✎ eguneko argazkia ✎ bideoak ✎ blogak ✎ inkesta ✎ agenda ✎ bitxikeriak
✎ 'azpeitia' atala: zerbitzu publikoen ordutegia, autobusen ordutegia, telefono zenbakiak, euskara atala, farmaziak, festak, hauteskunde denetako emaitzak, geografia, panoramikak, herriko taldeak, liburuak osorik... ✎ uztarria herri aldizkari denak; PDF formatoan ere bai ✎ eguneko efemerideak ✎ gida komertziala...

✎ sartu sarean, eta hartu parte ✎ egunero **7.000** orrialderen bisita



Norbera nor izan nahia

Bernardo Aizpitarte 'Kabra' saiatu zen "Autonomia" lantzen. Politikan eta maila pertsonalean norbanakoa defenditu zuen beti. 📝👁️ Uztarria

Bernardo Aizpitarte 'Kabra'-rena da Uztarria Komunikazio Taldeak 2009ko martxoan abiarazi zuen liburuxka biografikoen bildumako zortzigarren zenbakia. Julian Bereziartua medikuarena izan zen lehena, Leo Etxeberria sindikalista eta euskaltzalearena bigarrena, Valentina Agirre emaginarena hirugarrena, Santi Lazkano txirrindulari ohiarena laugarrena, Amaia Garmendia gitarra eta animalistarena bosgarrena, Enkarna Arregi mojarrena seigarrena eta Iñaki Bergara 'Pio' aktorearena zazpigarrena.

Joxin Iturriotz soziologoak idatzi du biografia eta apirilaren 21ean aurkeztuko du Uztarriak. Aurrerapen txiki bat da jarraian irakurri dezakezuen.

Elizkalean jaio zen Bernardo Aizpitarte Kabra, 1955ean. Gurasoak Joxe Aizpitarte, Iturbide baserrikoa, eta Ramona Arruti, Oriyonekoa, zituen. Haurtzaro arrunta bizi izan zuen. Nerabezaroan bizi izan zituen Franco diktadorearen azken urteak. Iraultzak ezinbestekoa zirudien, eta iraultzaren nolakotasuna zen jokoan zegoena. Giroa oso politizatu zegoen, eta Bernardo bete-betean murgildu zen giro hartan. Ingurukoek pauso txi-

kiak ematen zituzten bitartean, Bernardo sartuta zegoen eztabaida eta hausnarketa guztietan. LAIA alderdian berak hartu zuen propagandako multikopistaren ardura. Franco hil aurretik beste aldera joan beharra izan zuen; Urbigainen gordeta zegoen multikopista aurkitu zuten poliziek.

Ordurako bazeukan 'Kabra' ezizena. Inork ez du ziurtatzerik izan nondik zetorren ezizena. Halere, badirudi, bere mendizaletasunak bazuela zerikusirik. Lanetik etxera zuzenean etorri beharrean, mendi buelta eginez nahia go zuen Bernardok. Landetan aritu zenean, askotan Odriatik bueltan etortzen zen etxera. Garai hartan jarritakoa litzateke ezizena. Gero lanean Lasao hasi zenean, Orandatik etortzea zuen gustuko. Horra Kabraren mendizaletasuna. Eta ezizena.

Fronte antielektoral

Beste aldean ia urte eta erdi eman ondoren itzuli zen herrira. Estatu espainolean trantsizioa prestatzen ari ziren. Lehenengo pausoa hauteskundeak ziren. Orduan sortu zen fronte antielektoral, eta alderdi marxista-leninistetatik aparteko ideologia garatzen joan zen. Asanbladaren nagusitasuna, ordezkariarik

eza, ez nagusirik ez alderdirik... poliki-poliki zehazten joan zen "langile klasearen autonomia" dei diezaiokegun ideologia. Hor kokatu zen Kabra.

Eztabaidetan ez zuen luzaroan ihardun, baina. Soldaduskara joan behar izan zuen, Burgosera. Tarteka jarraitu behar izan zituen garaiko gorabeherak. Halere, ez zen atzean gelditu. Iraultza bera zegoen jokoan. Eta iraultza hori lehenbailehen bideratzeko ezinbestekoa zen borroka armatua. Giro hartan, bazirudien ez zegoela beste biderik. Fronte antielektoral hartatik sortu ziren Komando Autonomo Antikapitalistak zeritzenak. Kabrak aurrera egin zuen, beste inork baino lehenago.

Ordiziara joan ziren ekintza bat egitera. Komandoko beste kideak ihes egitea lortu zuen, baina Kabra zauritu eta preso hartu zuten guardia zibilek. Beasaingo San Miguel klinikara eraman zuten, osatzera. Hilabete batzuen ondoren, oraindik guztiz sendatu gabe, ihes egin zuen. Soka leihotik zintzilikatu, kaleraino jaitsi, eta ospa. Zaintzan zeuden guardia zibilak, bai pasilloan, bai klinika kanpoaldean, gela hutsa zaintzen aritu ziren, Kabra urrutiratzen ari zen bitartean. Garaipen handizat hartu izan zen ihesaldi hura.

Kartzelaz kartzela

Beste aldean babestu zen Kabra, sartu-irtena eginez hegoaldean. Horietako batean harrapatu zuten berriro, oraingoan Gasteizen. Sei urteko kondena bete zuen. Kartzelaz kartzelako ibilaldia bukatutakoan itzuli zen herrira. Autonomoen ibilbidea bukatuta zegoen. Eta borroka armatuarekin batera, bazirudien ideologia bera ere galduta zegoela. Borroka hark irentsi egin zituen inguruko guztiak; baita ideologia bera ere. Baina borroka armatua arlo bat besterik ez zen ideologia hartan, ez garrantzi handiagokoa, ez gutxiagokoa. Bat gehiago, besterik ez.

Kabrak ez zuen aukera handirik izan praktikan jartzeko pentsatzen zuena. Beste aldean ez zenean, klinikan, soldaduskan edo klandestinitatean zen. Eta kartzelatik irtendakoan saiatu zen bidea egiten. Lana utzi, eta liburdenda zabaldu zuen. Dendak, baina, ez zuen funtzionatu. Orduan kioskoan hasi zen lanean. Hasieran Marije bikoteari laguntzen, eta gero bere esku hartuta lanpostua. Osaba Santos gaixotu zenean, ahal zuen guztia lagundu zion. Ez zen inoiz ahaztu lagundu izan ziotenekin, eta beraiek behar izan zutenean, han zen Bernardo.

Hausnarketak ere ez zuen etenik izan. Haurremanetan jarraitu zuen hemengo eta estatu espainoleko hainbat taldeekin, batez ere Bartzelonakoekin. "Autonomia" lantzen jarraitu zuen Kabrak. Hainbat hitzaldi eman zituen. Baita idatzi ere. Gaixotasunak, baina, gogor jo zuen. Atake epileptikoekin hasi zen, eta kioskoa utzi behar izan zuen. Bartzelonan zen minez hasi zenean, hitzaldi bat ematen. Anbulantzia etorri zen etxera. Hezurretako metastasia zeukan, eta ez zegoen ezer egiteko. 2008ko urrian zendu zen, 53 urterekin.

Azaroan omenaldia egin zioten, Elosun. "Autonomia" bizirik dago.✕

LIBURUXKA |||||

DATUAK

Orrialdeak. 73.

Neurriak. 10 x 8 zentimetro.


Tirada. 1.200 ale.

Prezioa. 5 euro (Uztarriaren bazkideek doan jasoko dute).

21. PRODUKTUA

Aurreko 19 liburuak. Joxe Takolo, Angel Otaegi, Imanol Elias, Patxi Altuna, Azpeitiko efemerideak, Euskarazko prentsa eta Azpeitia, Azpeitiko mendi gida, Loiolarik ez balitz, Otsobeltz, Urrestillako musika taldeak, Azpeitiarrak Espainiako Gerran, Oroitarri, Julian Bereziartua, Leo Etxeberria, Valentina Agirre, Xanti Lazkano, Amaia Garmendia, Enkarna Arregi, Iñaki Bergara 'Pio'.

CDa. Urolaldeko bertso zaharrak.



Luba
aholkularitza

Aholkularitza
fisikala
laborala
kontablea

Gestorlanak
Finanzen administrazioa
Gestio Inmobiliarioa

Tel.: 943 137 525 Faxa: 943 137 275
Bazterre kalea, 45 • luba.azpeitiko.net

KIRURI
JATETXE

Loiola hiribidea, 24
LOIOLA - AZPEITIA

Tfnoa.: 943 81 58 08
Faxa.: 943 15 03 62

arte eta diseinu ikastegia

adi

Dibujo eta eskulanak
(haurrak) 17:30/19:00

Pintura 17:30/19:00

Talla 19:30/21:00

Jose Artetxe kalea, 3
669 414 025 - 943812808
matrikula urte guztian zabalik

ORDULARI

Jose de Artetxe, 10
Tel. 943 81 52 44
20730 AZPEITIA

TELEFONO ZENBAKIAK

TOKI PUBLIKOAK

Udaletxea	15 72 00
Udaltzaingoa	15 13 13
Suhiltzaileak	112
Azpeitia Lantzen	15 71 83
Iraurgi Lantzen	85 11 00
Nekazal Bulegoa	81 24 85
Iturritxiki Ludoteka	15 11 79
Zapo Txoko / GIB	15 71 61
INEM	15 04 02
Kiroldegia	81 30 69
Igerilekua	81 41 21
Ertzaintza-Azkoitia	0837 80
Aitonena I	81 51 71
Aitonena II	81 23 89
Epaitegia	02 51 91
Ingurumen Etxea	81 24 48

OSASUNA

Anbulatorioa	0254 00
Anbulat. larrialdiak	0254 01
Eguneko zentroa	15 74 96
Asepeyo	8144 00
Gurutze Gorria	8532 97
DYA-Donostia	4646 22

KOMUNIKABIDEAK

Uztarria	1503 58
Hitza (Azpeitia)	8138 41
Hitza (Zarautz)	8900 17
Azpeitian Zer?	8111 00
Berria	94330 4030
Gara	94331 6999
Noticias (berriemailea)	68760 5006
DV (berriemailea)	61081 2912
Argia	94337 1545
Nabarra	94822 7125
Arrate Irratia (berriemailea)	8126 32
Loiola Herri Irratia	8144 58
Euskadi Irratia	94301 2300
Erlo Telebista (Azpeitia)	8153 35
Izarraitz Telebista	8513 05
ETB	94301 1705

ALDERDI POLITIKOAK

EAJ	8155 70
-----	---------

FARMAZIAK (APIRILA)

EGUNEZ

1-4-5-6-7-8-9-10-19	2-3-14-18-26-30	11-16-17-20-29
Aranburu (Azpeitia).	Beristain (Azpeitia).	Alberdi (Azpeitia).
943811350	943811949	943815974

GAUEZ

1-21-22-23-24	2-3	4-5-6-7-8-9-10
Azpiazu (Azkoitia).	Gisasola (Azkoitia).	Aranburu (Azpeitia).
943852989	943851235	943811350

LARRIALDIAK

112

ODOL-EMAILEAK

Apirilaren 25ean izango dute hitzordua, 18:00etatik 21:00etara, anbulatorioan.

Hautetsi Independentistak	15 72 00
EA	81 00 11
EB-Aralar	15 72 00

SINDIKATUAK

ELA	81 34 46
LAB	15 13 56
EHNE	81 39 28

KULTURA-EUSKARA

Euskara Patronatoa	8145 18
Udal Euskaltegia	8119 47
AEK	1510 89
EHE	1510 89
Udal Liburutegia	1571 95
Loiolako Liburutegia	8165 08
Kontseilua	94359 1200
Bai Euskarari	90243 0026

IKASTETXEAK

Iraurgi	8102 10
Iraurgi (Betharram)	8116 68
Iraurgi (Milagrosa)	8163 80
Iraurgi (Jesuitinak)	8122 49
Ikasberri	1512 46
Karmelo Etxegarai	8126 97
Urola BHI	1502 28

BESTERIK

UGLE (Urolako gay-lesbian.)	273 posta
Xoxoteko aterpea	5810 07
Eregi Euskara-Komunikazio Zerbitzuak	

94308 0688

ORDUTEGIAK

UDALETXEA ||| Asteguna: 09:00-13:30 ||| Larunbata: 09:00-13:00 **UDALTZAINGOA** ||| Egun osoz irekita egoten da **ANBULATEGIA** ||| Egun osoz irekita egoten da **IGERILEKUA** ||| Astelehena: 14:00-21:00 ||| Beste astegunak: 07:00-21:00 ||| Larunbata: 10:00-13:00 eta 16:00-20:00 ||| Igandea eta jai egunak: 09:00-13:00 ||| Kanpoko igerilekua: ekaina arte itxita **KIROLDEGIA** ||| Astegunak: 10:00-13:00, 15:00-21:00 ||| Larunbata: 10:00-13:00, 16:00-20:00 **UDAL LIBURUTEGIA** ||| Astegunak: 10:00-13:00, 16:00-20:00 ||| Larunbata: 10:00-13:00 ||| Udan, Gabonetan: 08:30-13:30 **ZAPO TXOKO** ||| Asteartea-ostirala: 17:00-20:30 ||| Larunbata: 16:00-20:30

ERABILGARRI



▲ MEDIATEKA ZERBITZUA.

Sanagustinen mediateka zerbitzua jarri dute. Liburuak, prentsa eta ikusentzunezko kultur materiala dago bertan. Ordenagailu eramangarri bat eta e-book bat ere badituzte.

||| GARRAIOA |||

ALDALUR	94385 2718
EUSKO TREN	90254 3210
GUIPUZCOANA	94385 1159
PESA	94321 2699
PIPER ELKARTEA	94385 2587
TAXIAK	94381 1307

||| autobusen ordutegi osoa:

www.uztarria.com/azpeitia/
autobusak

1-21-22-23-24	2-3	4-5-6-7-8-9-10	11-12-13-14-15-16-17-25-26-27-28-29-30	18	19-20
Azpiazu (Azkoitia).	Gisasola (Azkoitia).	Aranburu (Azpeitia).	Alberdi (Azpeitia).	Ruiz (Azkoitia).	Jaen (Azkoitia).
943852989	943851235	943811350	943815974	943851966	943850660

MIKEL AZKUE

Australia

“Beste kultura batzuk ezagutzeko asmoa dinat”

Azarotik han dabil lagun batekin, lana egin eta bazterrak ezagutzen, Azpeitira noiz itzuli jakin gabe. 📌 **Julene Frantzesena**

Nolatan joan haiz Australia-ra?

Besteak beste, uda delako, eguraldi ona egi-ten duelako eta lan egiteko aukera zein inge-les maila hobetzekoa ere badagoelako etorri naun hona Urritz [Iruetagoiena] lagunarekin. Horretaz gain, bidaiatzeko dirua irabazi eta beste herrialde eta kultura batzuk ezagutze-ko helburuarekin irten ninan Azpeititik.

Zer moduz habil?

Egia esan, oso gustura.

Lana egin eta bazterrak ezagutzen za-biltzate, ezta?

Hala dun, bai. Australiara iritsi eta hiru hilabe-te lanean pasa ondoren, Zeelanda Berrira joan gintunan oporretara. Orain, Australiara bueltatuta, lanean ari gaitun gero Asia Hego-Ekialdera joan ahal izateko.

Nolakoa duk Ozeaniako jendea?

Orokorrean, jatorrak ditun. Australiarrak gehien eta ondoen lanean ezagutu ditinat, eta oso esker onekoak ditun gehienak. Egin-dako lana beti eskertzen ditun.

Ondo moldatu al haiz horra?

Hemengo bizimodua eta gurea oso desber-

dinak ditun. Ez zagon kaleko girorik eta faltan botatzen dun hori. Hala ere, bizi garen *back-packers*-ean (motxileroen hostala) giro bikai-na zagon eta gustura gauden bertan.

Azpeitiak ez duen zer dik Australiak?

Armiarma eta zomorro arraro ugari zagon. Bestalde, hor baino bizi maila altuagoa zagon, soldatak ere askoz hobeak ditun.

Zer gustatu zaik gehien? Eta, gutxien?

Orain arte, Zeelanda Berrira egindako bidaia eta ezagutu dudan jendea izan dun gehien gustatu zaidana. Aldiz, gutxien tabernetara sartzeko dagoen kontrola eta arroparekin duten txorakeria ditun. Prezioak ere ikaraga-riak ditun, eta tabernetan are gehiago.

Zerbait botatzen al duk faltan?

Bai. Kaleko giroa eta amaren babarrunak odolkiarekin.

Euskal Herriaz ba al zakitek zerbait australiarrek?

Dezente ditun Euskal Herria ezagutzen duten australiarrak. Gehienek Mundakako olatuagatik eta sanferminengatik ezagutzen ditun. Gutxi batzuek, berriz, gatazka politiko-agatik. ✖



Monogamo gara poligamo

Ez da gauza sana, ez da osasungarria. pentsatu ere ez ziutatera etortzea. askoz konplikatuagoa da hemen bizitza. hor bezala jaiotzen da jendea vitorian, negar makakorroka, hor bezala hazten da, builan eta hoska, dioska, hor bezala ezkontzen da, egiten ditu umeak, apartatzen da, berriz ezkontzen... baina hor ez bezala maite du jendeak hemen, nire lagun batzuk behintzat. ohean hizketan ari omen ziren andre-gizonak. goxo antzean, inondik ere. goxo antzean baino ez dago-eta horrelako galdera egiterik. 'harremanak izan dituzu?'. gizonaren andrea, isilik, esan nahi eta ezinean. andrearen gizona, galdezka berriz, haserrerik gabe. 'harremanak izan dituzu?'. eta gizona ondo-ondoan duela, goxo, maitasunez begira, 'bai' erantzun dio andreak... hasteko, ez du besterik jakin nahi izan gizonak. bere barrura bildu, trikuak egiten duen moduan. gero, galderak sortu zaizkio bata bestearen ondoren. baina baditu galdera horien erantzunak. gizonak ez du andrea honek behar zuen bezala maite izan. zaindu du ikaragarri, ondo-ondoan izan du estutasunean, maite izan du, baina ahaztu egin du hezur-haragizkoa dela andrea, maitasun fisikoa ere behar zuela, sexua, larrua, txorta. eta kanpoan egin du andreak etxean gizonarekin egiten ez zuena. 'maitasuna izan da', dio andreak. 'erregalo bat izan da', andreak, oraindik. 'maite nau, maite dut', segi andreak. 'zu ere maite zaitut, ez zaitut galdu nahi, minik ere ez dizut egin nahi'. gizonak ez du besarkatu besterik andrea. estu-estu hartu du eta muxu eman dio, maitasunez, minez, ezer entenditzen ez duen gizonaren posturan muxu, eta bion mingainak lotu dira hogeita hiru urteko gazte beroak zirenean bezala, mingainak lotu dira, urtu dira bi bihotz izotzak, piztu da sua, ezin itzali izan dute garra. maitasuna egin dute. eta maitasuna egin dute berriz bazkalondoan. eta hirugarrenean ere jo dute larrua iluntzean, oherakoan. ez bata ez besteak entenditzen du zer pasa-




|||||||miel a. elustondo||||

|||Gizonak andrea maite du, maite du andreak gizona, maite du andreak beste gizonezkoa ere

tu den. gizonak andrea maite du, maite du andrearen gizona, maite du andreak beste gizonezkoa ere. biak maite ditu. bata maite du fruta heldua delako, maitasun egina, bizitza bat elkarrekin egindakoaren emaitza. Bestea ere maite du, maiteminarenean maiteminez, poza, ilusioa eta zoriona ditu. biak nahi ditu, biak maite ditu, biak.

'ba ote?' hasi da galdezka eta aztarka andrearen gizona, bi pertsona maite ote litezkeen aldi berean han eta hemen irakurtzen. poligamiaz, gizonezkoaren kasuan; poliandriaz, emakumezkoarenean. antropologia psikologია eta zientziatik batere ez duten liburuak ere jo ditu esku artean. andrearen egoera azalduko dion giltzaren bila. leitu du hau, leitu du hura, leitu ditu begiak ahal izan dituen guztiak. erantzunik ez. galdetu dizu zuri, galdetu dio hari, galdetu dio besteari: 'zuk zer ueste duzu, monogamo ala poligamo dela gizakia, garena gizakiok?'

'oso konplikatu da', orain artean jaso duen erantzunik borobilena. gizon gizona.✱




Xanti.R



UDABERRI TA UDARAKO KOLEKZIYO BERRIYE PREZIYOIK ONENIEN!

Damaso Azkue plaza, 7 · 943080524 · nknmoda@gmail.com



Santi Lazkano Kirolak

Jose Artetxe 1
Tel/Fax: 943 81 16 50



UDABERRIA-UDA 2012





**PINTURAK - BURDINDEGIA - BRIKOLAJEA - ELEKTRIZITATEA - SEGURTASUN BABESA
GILTZEN KOPIAK - PARKET-AK - GARBIKETARAKO MATERIALA - OSAGAIK**



Landeta Hiribidea, 8 - Azpeitia
Tel.: 943 81 25 66 • Mug. 607 58 89 13
www.landetabrikodenda.com



jarraitu gaitzazu facebook-en



innovadental



innovadental

Bisita gaitzazu:
José de Artetxe kalea, 5
(anbulatorioaren ondoan)
20730 **AZPEITIA** (Gipuzkoa)

Edo deitu:
943 02 59 55

implanteak

Euskadin, 2.000 INPLANTetik gora
*Eskatu presupuestoa eta kontsultatu
gure finantzaketa!*

hortz-klinika
AZPEITIA